



uk

69. zenbakia / 2004 urriak 20

# mantangorri<sub>rekin</sub>



## Zinema etxean

8 DVD  
euskaraz

urriaren **23**tik aurrera  
asteburuetan BERRIAREKIN

1. Ipar Haizearen Erronka
2. Annaanna
3. Martina eta xagutoak
4. Baloia
5. Ipar Haizearen Itzulera
6. Rudy Txerritoxa
7. Yolanda eta Arrosa Beltzaren Sekretua
8. Gezi Urdina



+ 2,90 €

Babeslea:



Euskaldunok behar dugun **berria**

## Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Pintada Areetan. Asier Mentxaka.
6. PLAZA. Leihatila, Josu Esnaola. Gaztetxeak, Maddi Albizu.
7. LEHEN ETA ORAIN. Areetako hondartza, 1893-2004.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopela 18. Berango 20. Gainerako herriak 21.
23. AGENDA.

### SAKONEAN

24. ALBUMA. Off Getxomoda. Asier Mentxaka.
26. ARGAZKIA. Galea. Lobo Altuna.
28. BERBETAN. Ana Urkijo. Unai Brea.
32. ERREPORTAJEA. Irigaritasuna Uribe Kostan. U. B.
34. FOTOGRAFIA. Gaztetxeak iruditlan. A. M.

### KULTURA ETA AISIA

36. ZINEMA. Oskar Fernández-en zutabea. Haur Zinema programa.
37. MUSIKA. Udagoieneko uzta berria. Diskoen erreseinak.
38. LIBURUAK. Jon Gerediagaren liburua eta Esti Ezkerraren zutabea.
39. KOMUNIKAZIOA. Bilbo Hiria Irratia, udagoieneko eskaintza.
40. SAREAN. Internet, Iker Merchanen eskutik.
41. ELKARRIZKETA. Paul Bilbao, Behatoki zuzendaria. Unai Brea.

### EUSKARAZ

42. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Urtzi Iglesiasen eskutik. Xabi Bilbaoren "Gure berbakere" zutabea.

### AMAITZEKO

44. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderen errezeta eta Itsaso Aranaren ardoaren gaineko lezioa. Non jan? Hanburgesa bat Alvaritorean.
46. HOROSKOPOA.
47. KOMIKIA. Dogan Gozel.
48. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
49. FLASH BACK. Getxoko institutua, 1966. Bittor Egurrola.
50. AITORMENAK. Anari. Jon Urresti.


Azaleko argazkia: Asier Mentxaka (Getxo)



30 Ana Urkijo

### Berbetan

Athleticen zuzendaritza berria dauden emakume bietako bat da Ana Urkijo. Ez dauka kargu makala bigarren presidenteordea da eta.



12 Rozio Luces



24 Getxomoda



41 Paul Bilbao



19 Maria Luisa Bilbao



50 Anari

## Bihotz Handi Getxoko odol emale

Odola emateko egunak / ordutegia: 16:30 / 21:00

- Algortako San Nikolas plaza..... **azaroak 15 / abenduak 13**  
 Algortako Erredentor eliza.....**azaroak 16**  
 Algortako anbulatorioa.....**azaroak 22**  
 Areetako anbulatorioa.....**azaroak 23 / abenduak 14**  
 Erromoko kultur etxea..... **azaroak 25**

Informazioa: 900 720 389 Etorri odola ematera, ez itxar...

## Argia

aldizkariaren harpidetzen irabazleak

- Nahia Malaixetxeberria
- Iñigo Iturrate
- Iñigo Lopez

Saria jasotzeko deitu gure bulegora:

94 491 13 37

**UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA**

**ARGITARATZAILEA:** Boluntzarreta  
**HELBIBIDEA:** Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48911 GETXO  
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kuba 171  
 Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31  
**ZUZENDARIA:** Jokin Aspuru  
**ERREDAKZIOA:** Irantzu Sagaminaga, Aritz Bregel  
**FOTOGRAFIA:** Asier Mentxaka  
**TESTUEN ORRAZKETA:** Jon Etxebarria  
**KOLABORATZAILEAK:** Unai Brea, Jon Urresti, Urtzi Iglesias, Bittor Egurrola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Oskar Fernández, Josu Esnaola, Xabier Buenetxea, Berbets Erandion Euskaraz eta Bizara Lepoan Euskara Elkartea  
**MARRAZKILARIAK:** Dogan Gozel, Gorka Vázquez  
**PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA:** Zuriñe Martínez (94 491 13 37)  
**HARREMANAK:** Gorka Orueta  
**FILMAZIOA:** Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF  
**LEGE GORDAILUA:** BI-1878-00  
**ISSN:** 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago  
 © Boluntzarreta  
 Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteentz Topaguneko partaidea da

**Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du**

Itxasgane Etxea / Karitatea 1  
 94 491 43 57 / 48990 Algorta

**TOPAGUNEA**

**GETXOKO UDALA**

Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du

**Leioako Udala**

Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuiko dirulaguntza jaso du

**BERANGOKO Udala**

Aldizkari honek Berangoko Udalaren dirulaguntza jaso du

**Erandioko Udala**

Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du

**BERANGOKO Udala**

Aldizkari honek Erandioko Berbets Euskaraz elkartearen laguntza jasotzen du

**Bizkaiko Foru Aldundia**

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

**Fundación Grupo Eroski**

KONSUMITZAILARENENTZAT

Aldizkari honek Eroski Jaurlaritzaren Kultura Salaren dirulaguntza jaso du

**UK**

Behar beharrezkoak ditugu zuen dirulaguntza!

BBK 2095 0121 10 91 02483676

Boluntzarreta

gugeu

# Jenero kontuak

**Argitaratzen** dugun UK bakoitza irakurri, aztertu eta autokritika egiteko ohitura izaten dugu erredakzioan. Eta ale batzuekin besteekin baino gusturago lotzen bagara ere, egia esan, zer hobetu eta akatsak aurkitzen ditugu UK guztietan. Esan bezala, autokritika egiten dugu eta ariketa hau egiten dugun bakoitzean etengabe mahaigaineratzen den gaia jeneroen kontua izaten da. Hau da, nola da posible emakumezkoak gizartearen erdia baino gehiago direnean –lantaldean *fifty fifty* gara– gure aldizkarian gehienetan gizonezkoak, alde handiz gainera, izatea protagonista nagusiak? Kezka hau izaten dugu eta horregatik edukiak aukeratzeko batzarretan kontuan hartzen dugun aldea izaten da jeneroarena. Eta ez inondik inora errepresentazio kuotetan edo antzekoetan sinisten dugulako, ez. Kontua beste bat da. Guk gakoa mundua begiratzeko moduan datzala deritzogu eta horregatik eskualdeko eguneroko bizitza orrialdeotan zuentzako jasotzen saiatzen garenean, ahalik eta begirada zabalen izaten saiatzen gara, errealitatearen alde guztiak begiratzen eta arreta ez bakarrik goi kargu eta horrelakoetan ipintzen.

Bada ale honetan lau emakumezkoen berri dakargu: Ana Urkijo Athletic-eko presidenteordea, Anari abeslari paregabea, Rozio Luces Uruguain euskara ikasi zuen gaztea eta orain Egizu programaren dinamizatzalea, eta Maria Luisa Bilbao 50 urtez Larrabasterrako ilepaintzalea izan dena. Emakumezkoen istorioak.

Esan bezala, kontua errealitatea begiratzeko moduan datza eta arretaz begiratzuz gero beti agertzen dira emakumezkoak. <sup>4</sup>

**UKko lantaldea**

## gutunak

**Atal honetan irakurleen iritziak, eskaerak, gutunak argitaratu nahi ditugu. Zuen testuak bidaltzeko: uk@aldizkaria.biz • Faxe: 94 491 58 31**

## matematika aplikatua



Gorka Vázquez

**Goizero erosi > berria**



AREETA, 2004KO URRIA

## Pintada Areetan /

Ametsak dira saldu eta erosi ezin daitezkeen gauza bakarra. Nahikoa da imajinario pixka bat edukitzea amets egiten hasteko. Horixe esan zioten gurasoek gaur ama den emakumeari eta, denbora batez, sinetsi egin zuen gurasoen esana. Gogo pixka bat nahikoa da gura duzun hori lortzeko. Handik urte batzuetara, ezkondu eta pisu bila hasi zenean, ohartu zen gauzak ez direla hain sinpleak. Gogoagaz bakarrik ez dira hipoteka, seme-alaben liburuak, autoa, oporrak, etab. ordaintzen. Izan ere, gaur egungo gizartearen bankuek erabakitzen dute zertan egin dezakegun amets, eta zertan ez. Logika horren arabera, dirua daukana beti egongo da ametsak gauzatzenik gertuago, ostera, haren falta duenak... Oraingoan, lezioa ondo irakatsiko dio amak alabatxoari. “Dirua da zaldun boteretsua...” / Argazkia: Asier Mentxaka

**Leihatila**

&gt; Josu Esnaola

**Galanta**

**Galanta dator, bai.** Telebista iziotzen dudan bakoitzean galantak ikusten ditut, demasekoak. Aurreko astean, esaterako, *Vaya Semanita* jari nuen. Hondarribiko gaztearena denon ahotan eta hauek adarra jo nahian, ze esketx hark ez zeukan inolako graziarik.

Zer pentsatuko ete zuten modu horretan semea, andrea, alaba, neba, ama, laguna, aita, ahizpa, gizona, arreba, anaia galdu dutenak? Duela gutxi jakin izan dut gure familian ere izan direna halakoak. Zorionez ni jaio aurretiko kontuak dira, eta nik ez dut horrek hurbilekoenengan sortu behar duen astindua, egonezina sentitu.

Hala ere, inguruan -oso gertu- suertatu zait halakorik. Jaioterria, kalearen beste aldeko etxe batean, lehenengo aitak, itsu geratu eta urte batzuetara, bere burua bota zuen azkeneko pisura igota. Urte batzuen buruan semeak, hamabost bat urte izango zituen, gauza bera egin zuen, baina honek etxeko balkoitik egin zuen salto. Ez zioten buelta gutxi emango buruari amak eta alabak. Eta izeko-osabek? Eta lagunek? Zer esango zioten elkari? Zer euren buruei?

Bakoitzak bere beldurrak, bere infernuak dauzka, eta a zelako suertea entzungo dion inor duenak, a zelako suertea lagunduko dion inor daukanak. Askotan bikotekidea, familia, lagunak izan arren bakardaderik lehorrean, inkomunikaziorik isilenean bizi gara, geure sentimenduez berba egiteko ezgai, azalkeariak azalenekoenean, txikiak itzelezko arazo bihurtu eta benetako, sakoneko arazoan aurrean sorgor. *Cronicas Marcianas* sindromeak jota bizi gara.

Galanta dator, ez, galanta datorkigu. Umorez hartu beharko, bestela. 4

**IRITZIA****Gaztetxearen aferaz gogoeta eskatu diogu Maddi Albizu soziologoari****Uholdearen ostean ura bere bidean****Irailaren 27an, Ertzaintza Erromoko**

Gaztetxea sortzeko asmoz okupatutako etxean sartu zen (urriaren 7an gauden honetan beste bat daukate okupatua nonon). Irudi ezagunak, ezagunegiak, ikusi behar izan genituen.

“Basakeria handia” hitz bitan. Getxoko zenbait gaztek, udalerrri honetan dauzkaten eskaintza eta aukerak urriak baino urriagoak direla aldarrikatuta espazio bat okupatu zuten, eta bertan euren proiektu autogestionatua abiarazteko lehenengo urratsak emateari ekin zioten. Gure udalak, udal gehienentzera, autogestioaren aldeko mezua ulertzeko zailtasun nabariak eduki ditu, herri honetako hainbat eta hainbat herritarrek bezalaxe. Ondorioz, udalak gazte ekimen horren gaineko irakurketa okerra egin du, eta gainontzeko gazte elkarteak legez udal lokalak uzteko ezarritako arauari jarrai diezaitez eskatu die Erromoko Gaztetxearen inguruan bildutakoei.

Aurreko paragrafoko ia esaldi guztiak eztabaidagarriak dira: *egia al da Getxon gazteentzako eskaintza urria dela?; egia al da gazte hauek benetako proiektu autogestionatua bultzatu gura dutela?; egia al da udalak ez duela ulertu auto-*

*gestioaren aldeko aldarrikapena?*

Galdere hauei nork bere gisara erantzungo die baina, erantzunak erantzun eta ikuspuntuak ikuspuntu, ezin zalantzan jarri herriko gazte batzuk elkartu egin direla talde-ekintzari era autonomoan, hau da, administrazioari laguntzarik eskatu gabe, ekiteko. Gura hori gauzatzeko erabilitako estrategiak eta formak okerrak ala zuzenak izan, ekimen honek ez du jaso ez merezi zuen arreta, ezta erantzuna ere. Kontuan har dezagun, ordea,

**«Ura bere bidera eraman daiteke. Bi aldeetako borondatea besterik ez da behar»**

gazte hauen aldarrikapena, lurpeko ur korronteen antzera, luze gabe nonbaitetik aterako dela, urpeko korronteei beti aurkitzen dute eta kanpora irtetea ahalbidetuko dien zirrikitua. Lege fisiko hutsa da, gainera, horri eusteko ahalegina zenbat eta indartsuagoa izan, orduan eta bortitzago aterako zaigu ura gutxien espero dugun tokitik. Bidera ditzagun, bada, urak.

Metaforari jarraiki, urak bideratzeko ardura daukanak, Udalak kasu honetan, hausnarketa kritikoa egin beharko du irailaren 27an gertatu zena berriro ere gerta ez dadin. Era berean, Udalak esan beharko du zein iritzi duen autogestioaren aldarrikapenaren inguruan eta, are garrantzitsuagoa dena, haibestetan zabalduko gazteen parte-hartzearen aldeko diskurtsoa zertan gauzatzen den.

Halaber, urek ere -gazteek- beren lana egin beharko dute. Estrategia komunikatibotik ikusita ezin genezake esan oso oker jardun dutenik. Euren estrategia sinplea bezain eraginkorra izan da; azkenean, telebistan agertu dira eta, gainera, kate publikoko zenbait esatari beraien alde azalduta. Hautatu duten estrategia negoziatzaileagaz, ostera, ez dute bete-betean asmatu. Orain eman beharreko urratsa zailagoa daukate: proiektu bat definitu, saldu eta Udalarekin negoziatu.

Ura bere bidera eraman daiteke. Bi aldeetako borondatea besterik ez da behar. 4

Maddi Albizu (soziologoa)

[lehen]



[orain]

**Iraganez doa denbora\* beti / AREETAKO HONDARTZA 1993-2004**

\* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

**photoshop > aurkikuntza Ariluzeko uretan**

Irudiak eta manipulazioa: Asier Mentxaka



Itsasbehera eta itsasgora Arriluze inguruan, irailaren akabuan

## natura > irailako marea biziak

**Eguzkia, Lurra eta eta Ilargia** lerrokatzen direnean, hiru amandreen erakrpen-indarrak batzen direnean, itsasgora eta itsasbeheraren arteko aldea handitu egiten da. Maria biziak izena hartzen du fenomeno honek. Ilargi bete eta ilargi berria egoten denean itsas mugimenduek indar handigoa hartzen dute eta mareak gehiago igotzen eta jaisten dira, esan legez, marea biziak deitzen direnak sortuz. Horrez gain, udaberri eta udazkeneko ekinozioetan, mareek bere zabaltasun handiena erakusten dute. Hartara, marea biziak egoten direnean, urte osoko kostaldeko irudia itxuraldatu egiten da, paisaia ikusgarri eta oso desberdinak erakutsiz. Olatuen tamaina ere asko handitzen da, horregatik egiten diete surfariak hain ongiatorri irribarretsua marea biziak. Iragan irailak marea bizi eder eta itzelak eskaini zizkigun, horren adierazgarri dira goian ikus daitezkeen bi argazkiak: itsasoak lurra inoiz baino gehiago bereganatzen duenean, eta lurra itsasotik inoiz baino gehiago urruntzen denean. <sup>m</sup>

**Arasa**  
Sukalde eta Komunitararako Ekipamendu Osoa  
Barnekaldeen zaharberriak eta dekorazioa  
Sarrikobaso, 44 • 48990 Algorta  
Tel/Fax: 94 430 11 91

**SPL BAR ESPUELA**  
**ITURRIBIDE**  
BILBAO  
• PINTXO GORO-GOROAK  
• OSTEGUN KULTURALAK  
• ASTEBURUTAN MARTXOLA  
• TELEFONOA: 944150565  
• ITXURALDATURIK HATOR.  
ELKARTOKIA ETA GIRO JATORRA

**JATETXE BEGETARIANO**  
• Eguneko menuak  
• Asteburuetan menu bereziak  
Sertutza 4, Sopela  
Telf. erreserba: 645 732 991  
zuri haiz  
jan eta edan

**SATISTEGI**  
**ADITUAK GARA PINTXO ETA**  
**BoKATA BEROETAN!!!!**  
BASAGOITI ETORBIDEA 51  
**ALGORTA**

## bertsolaritza > bihotza gazte



Ezker-eskuin: Jon Enbeita, Xabier Amuriza, Trino Azkoitia, Juan Mari Narbaiza eta Joseba Santxo

**Bihotza Gazte** izeneko bertso-ekitaldia lehengo barikuan burutu zen, urrietaren Iean, Algortako Traganarru taberna gazte girokoan. Iaz abiatu zuten ekimen original hau Algortako Bertsolari Eskolako kideek, Getxoko Udalaren laguntzaz. Ekitaldiaren funtsa bertsolari beterranoak gazte-giroan kantari jartzea zen; zen eta da. Gertatzen dena da iazko saioa hotz samarra gertatu zela (Aldai kulturagunean egin zen) eta jende gutxitxo hurbildu zela. Aurtengoan, ostera, Traganarru taberna txiki geratu zen Xabier Amurizaren, Jon Enbeitaren eta Juan Mari Narbaizaren bertso eder, goxo eta beroen entzule grinatsuk hartzeko. Saioa bizi izan zen, hartan ere, eta hiru bertsolariak argi utzi zuten bihotza gazte daukatela, batetik; eta bestetik, gazteen bihotzak pil-pilean jartzeko gauza direla. Entzuleen jarrera ere parebakoa izan zen, bertsoen akaberak errepikatzen, bertso onak txaloz eta aupadaz esker-tzen, eta bertsolarien pikardiari barre algaraz erantzuten. Izango da hurrengorik! <sup>m</sup>

## kale izendegia > Jose Ramon Aketxe

**Elexaldeko eskolak** Leioako haurrak doako irakaskuntzara hel zitezen sortu ziren, baina behar adina dirurik ez zegoenez bertoko maisuei ordaintzeko, Jose Ramon Aketxek 65.000 errealekin zituen bere patrikatik. 1872an Leioako kanposantua handitu egin zen bere ekimenez; hori gogoratzen duen hilarri bat paratu zuten San Joan elizako bobedan. Bestalde, 1891n gaur egungo Udaletxea eraikitzeko erabakia hartu zuten, eta Aketxek berak hartu zuen obra berria ikuskatzeko ardura. Bere testamentuan utzi zuen ondareari esker, San Joan elizako kanpandorra konpondu zen, eta 10.000 pezeta laga zituen guztiz txiroak ziren leioaztarrentzat. Aspaldiko Leioaren alde hainbeste egin zuen ongilea omentzeko, Jose Ramon Aketxe plaza izena ipini zioten Elexaldeko plazari 1924an. <sup>m</sup>

## GOIZEAN



Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez  
Prentsa - Fritu lehorrak - Aldizkariak - Lixarriak

Orduña Mendatea 1  
T: 430 22 13  
GETXO

Telletxe 13  
T: 460 02 88  
ALGORTA

etorri  
eta  
ikusii!

**ORIXA**

liburudenda

Alangoeta 8 (Euzkal Herria kalearekin bat)  
Tfn.: 94 491 23 79  
Algorta

## BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**Kantxa Kizol moda**



**350** m<sup>2</sup>

**KIROLERAKO GUZTIA!!**

**URIBE KOSTAKO KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

# Bizitzeko lonjak

**Etxebizitza izateko 120 lonja** egokitu dira Getxon azken bi urteotan, udalak emandako lizentzien **kopuruak izugarri egin du gora** aurten, izan ere, **97 eskaera** onartu ditu **urtarriletik**

Lonjak eta merkataritza saltegiak etxebizitza bihurtzeko 97 eskaera onartu ditu Getxoko udalak urtarriletik gaur arte. HAPO-k 2002an arautu zituen lonja etxebizitza bihurtzeko bete beharreko eskakizunak. Horren albotik, orain dela bi urtetik hona denetara ia 120 lonja egokitu dira etxebizitza legez erabilgarriak izan daitezten. Alabaina, udalak ematen duen baimenaz gain, Jabekideen Erkidegoko arauak ere betebeharrak dira.

**Orain dela bi urte,** lonja edota saltegi komertzial bat etxebizitza bihurtu ahal izateko bete beharreko eskakizunak eta betekizunak batu zituen HAPO Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorrak. Araudia indarrean sartu zen lehenengo urte hartan, lonja egokitzeko baimen bakarra eman zuten Getxoko udalak. Iaz, oster, 20 eskaera onartu zituen, eta aurten emandako lizentzia kopurua ia bozkoitza izan da. Izan ere, lonja edota saltoki bat etxebizitza bihurtzeko 97 baimen eman ditu udalak urtarriletik hona.

Jabekideen Elkargoko baimena Baina udalaren oniritziaren gain, egokitzpena gauzatu ahal izateko beste arau edota betekizun batzuk eduki behar ditu lonjak; besteak beste, Jabekideen Elkargoko arauak bete, eta bere baimena eduki. Getxoko udalak eskatzen duen betebeharrerako bat da aurreko hori: "besteak beste, baimenak eta



Konporte kalean etxebizitza izateko egokitzen dabiren lonja

lizentziak emango dira, egokitzapenak hirugarren pertsona bati kalterik egiten ez dionean eta jabegoaren eskubideak urrutsen ez direnean". Beraz, hori bete ezean Getxoko udalak ez du baimenik emango, hau da, Jabekideen Elkargoaren oniritzi barik ezingo dira lonjak edota saltegi komertzialak etxebizitza izateko eraldatu.

## «Jabekideen Erkidegoko arauak betetzea derrigorrezkoa da»

Bestalde, udalak hurrengo eskakizunak ere dauzka, bestak beste: inguruko lursailaren maila berean egon beharko du lonjak, lur azpiko lonjak ez dira etxebizitza izateko erabilgarriak; derrigorrezko garajetat izendatuta daudenak ezin dira egokitu; goi-

mailako arkitekto batek egindako eta sinatutako proiektu teknikoak aurkeztu behar da; 2,6 metrotik gorako altuera eduki beharko du leku guztietan, komuneko eta sukaldeko aireztatze sistemak ere betekizun zehatz batzuk ditu; eta kalera irteteko pasabide zuzena izan beharko du. m

## Betebeharrak batzuk

- Inguruko lursailaren maila berean egon behar du lonjak. Lur azpikoak ez dira erabilgarriak.
- Garajetat hartzen direnak ezin dira erabili.
- Goi-mailako arkitekto batek egindako proiektu teknikoak beharrezkoak da.
- Eraikinaren fatxada-hormari egokitutako kanpo-itxura eduki behar du.

## Garapenerako Lankidetzak

Udalak **245.000 euroko diru-laguntzagaz** bultzatuko ditu 17 GKEren **16 proiektu**



Tindouf, errefuxiatu saharaiuen kanpamendua

**Garapenerako Lankidetzako** 16 proiektu diruz lagunduko ditu Getxoko udalak. Denetara, 245.000 euroko diru-laguntza emango du, kopuru horrez gain, uztailan emandako 12.000 euroak ere kontuan hartzekoak dira. Laguntzak bi norabidetan bana daitezke: alde batetik, Hego Amerika (4 egitasmo), Ertamerika (6 proiektu) eta Afrikako (3 programa) zenbait ingurune behartsuetan gizarte eta ekonomiaren sustapenerako laguntzak daude, 13 proiektu denetara. Talde horretako proiektuen artean 195.000 euroko diru-laguntza banatuko du udalak. Beste alde batetik, 3 egitasmo daude Tindufeko saharaiar errefuxiatuen kanpamendueta-rra zuzenduta, eta horiek 50.000 euroko

laguntza jasoko dute.

### HEGOAREN aholkularitza

Laguntzak zein elkarteri eman erabakitzerakoan, Getxoko udalak EHUko Nazioarteko Garapen eta Lankidetzaren gaineko Ikasketa Institutu HEGOaren laguntza eduki du. Hurrengo GKEak lagunduko ditu: EHIGE, Mugarik Gabe, OP Cooperacion, Adeco, Ayuda Mas, ECCA Erromo, Lagun Artean, Mary Ward, Meninos de Rua, PTM Mundu bat, San Martin de Tours, Zabalketa, RASD eta ATFAL (egitasmo bateratua), Paz y Solidaridad eta Medicus Mundi Bizkaia. Azken 4 erakundeek jasoko dute laguntza handiena, 30.000 euro bana. m

## TURISMO BULEGORA JENDE GUTXIAGO HURRERATU DA AURTEN

Getxoko Turismo Bulegora jende gutxiago hurbildu da aurten. Urteko lehenengo 6 hilabeteak kontuan hartuta, iazko datuakaz alderatuz, aurten informazio eskean hurreratu den jende kopuruak %16a egin du behera. Gainera, uda garaian ere behera egin du. Hala ere, Iñaki Zarracoa alkateak azaldu legez: "honek ez du esan nahi Getxo bisitatu duten turisten kopuruak behera egin duenik, hauek Turismo Bulegora hurbildu direnen arabera datuak dira".

## GOBELAKO APARKALEKU BAT ERABILTZeko AUKERA GETXOZTARRENTZAT

Gobelako kiroldegi azpian egiten dabilzan aparkalekuan toki bat bereganatzeko aukera eskainiko die udalak getxohtarrei. 280 leku dauzka aparkalekuak, eta horietako bat eskuratuz gero, 25 urtez erabiltzeko ahalmena izango du jabeak. Aparkaleku bakoitza 9.000 eta 15.000 euro bitartean alokatuko du udalak, eta esan legez, ugazabak datozen 25 urteotan erabili ahal izango du aparkaleku hori. Gobelako aparkalekua datorren urterako amaituta egotea espero dute udal arduradunek.

## GURASOENTZAKO IKASTAROAK MARTXAN

Getxoko Guraso Eskolak doako ikastaroak eskainiko ditu aurten ere. Denetara 5 dira emango diren ikastaroak, denak gazteleiaz: Drogamenpetasunerako prebentzioa, Estresaren prebentzio eta maneia, Eskolaporrta ez emateko urratsak, Gurasoentzako psikologia eta Sexu Heziketa. Ikastarootan parte hartzeko ez da alde zuretik izenik eman behar, hasten diren egunearn bertaratzea nahikoa da, eta gurasoak euren seme-alaben ikastoletan ematen ez diren ikastaroretan ere parte har dezakete.

Informazio gehiago: 94 466 01 30



**Basurto**

Algorta S.L.

altzariak

Telletxe 15 • Algorta • T: 460 42 44

## LEHEN, ORAIN ETA BETI

- 1970az geroztik altzariak diseinatzen.
- Orain ere, armairuak neurri.
- 200 m<sup>2</sup>ko erakusketa berria: Telletxe 4 (T: 94 460 71 62)

**Zatoz!**

# Eleizpe

eskaut taldea desagertu da 33 urte eta gero

**Umeakaz eta** umeen aisialdia antolatzen kristoren lana egin ondoren, getxoztar eskaut talde ezaguna desagertu egin da. Ume getxoztar asko eta asko pasatu dira Eleizpetik. Gaur egun, hain umeak ez direnek gogoan daukate eskaut taldean emandako ordu luzeak, atseginak, dibertigarriak, hezitzaileak... 33 urte haur getxoztarrak dibertitzen eta hezitzen eman ondoren, egitekoa amaitutzat eman du Eleizpek. Desagerpenaren arrazoiak, boluntarioen esanetan, ondorengoak dira: begirale falta, azken urteotan umeen kopuruak behera egin duela, eta begiraleek fede kontuakaz edukitako arazoak. <sup>m</sup>

## ESKOLA LAGUNTZA

- Matematika, Fisika...
  - Maila guztiak
- 10 urteko eskarmentua!!!

T.: 655 739 964

**amesti**  
obrak·proiektuak

Berrikuntzak  
Eraikuntzak

Etxebizitzak  
Lokalak  
Bulegoak

Basagoiti etorb. 56  
48.991 Algorta  
Tel. 944 915 298  
Fax 944 915 299  
amesti@ameslur.com

**Rozio Lucés** > Egizuko dinamizatzailea

“Euskara ez da harresia, zubia da, ate askotarako giltza”



Rozio Lucés Montevideoko Euskal Etxean ikasi zuen euskara

**Rozio Lucés Uruguain jaio zen orain dela 26 urte. Amaren aldeko aitite-amamak Uruguain elkar ezagutu zuten naparrak ziren. Montevideoko Euskal Etxean 7 urte eman zituen euskara irakasten. Gebxora orain dela urte bete bizitzera etorri zen. Geroztik, Egizu-ko dinamizatzailea da.**

—Uruguain ikasi zenuen euskara ezta?  
—Euskal Etxeko dantza taldean nabilen, eta 13 urte neuzkala, euskara talde bat sortu zen Montevideon eta izena eman nuen. Hurrengo urtean, Argentinara joaten hasi nintzen han barnetegiak antolatzen direlako. 1997an Euskal Herriera etorri ginen euskaraz bizitzeko asmoarekin. Familia euskaldunek hartu gintuzten Lazkaon, eta bertako barnetegitara joaten ginen egunero. Gure helburuetako bat, Uruguain euskara irakasleak izateko prestatzea zen. 15 urterekin euskara eskolak ematen nituen, eta ikasle gehienak ni baino nagusiagoak ziren, 80 urteko ikasleak nituen gelan!  
—Zelan imaginatzen zenuen Euskal Herria Uruguaitik? Eta zelan aurkitu zenuen?  
—Batziek uste dute gizon guztiak txapela buruan dabilzala, txistuaren doinuak... Nik ez nuen hori uste, euskara irakasleek bestelako egoera irudikatzen zigtelako, eta hemendik

joandakoek kontaktzen zituztenak ere bestelako irudia deskribatzen zigtelako. Hori bai, nik euskaldunagoa imaginatzen nuen, euskara gehiago entzungo nuela uste nuen. Kosta egiten zait euskaraz egitea, erderaz hitz egiten baduzu, azentua atzematzen dizute, eta ez dute ezta pentsatu ere egingo zurekin euskaraz hitz egin dezaketela. Baina, etorkinontzat, euskara jakitea ona da, ate pilo bat irekitzen dizkizulako. Eta euskara dakizulako jendeak beste era batean hartzen zaitu, eta zuk ere hobeto ulertzen duzu euskaldunen izakera. Euskaraz banabil euskalduna naiz, baina erdaraz banabil uruguaitarra, kanpotarra. Euskara ez da harresia, zubia da, ate asko irekitzen dituen giltza.

### «15 urterekin euskara irakasten nuen Montevideoko Euskal Etxean»

—Egizu egitasmoaren dinamizatzailea zara.  
—Egizukoa jarraipen modura hartzen dut. Uruguain Euskal Herria ezagutarazten, euskaldunei tokia egiten jarduten nuen, orain Euskal Herriaren nagoela ahaleginduko naiz Euskal Herria euskalduna izan dadin, eta ez erdal herria, Euskal Herria egunero euskaraz eraikitzen, euskarari orain ez daukan lekua egiten. Denon esku dago hori lortzea. <sup>m</sup>

## Artista handiak Erromon Basterretxea, Arias eta Mieg-en lanak ikusgai



Argazkian, Nestor Basterretxearen lan bat Erromoko Kultur Etxean

**Bosteko 04** erakusketa ibiltariaren lehenengo geltokia Erromoko Kultur Etxea izango da. Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura sailak eta, aurtan, Getxo, Mungia, Arrigorriaga, Basauri eta Zornotzako udalek elkarlanean antolatu dute erakusketa. Aurtan 7. urte bete du.

Bizkaitarrak arte garaikidera hurreratzeko asmoagaz jaio zen Bosteko, eta edizio honetarako aukeratutako artistak ondorengoak dira: Nestor Basterretxea (Bermeo, 1924), Amable Arias (Gaztela Leon, 1927; Donostia, 1984),

eta Juan Mieg (Gasteiz, 1938). Hiru artistok “Euskal Eskolaren” taldeetan parte hartu zuten 1966an. 9 sorkuntza daude ikusgai Erromoko Kultur Etxean, artista bakoitzeko hiruna lan. Margoek eta eskulturrek osatzen dute erakusketa eta urriaren 30era arte egongo da Getxon. Ondoren, Bosteko antolatzen duten udalerrietan erakutsiko da, udalerriri bakoitzean hilabeteko epean. Amaitzeko, Erromoko Kultur Etxeak hurrengo ordutegia dauka: 11:00-13:00 eta 18:00-21:00. <sup>m</sup>

## ANTZERKI ESKAINTZA ZABALA ASTE-AKABU HONETAN

Pasadan aste-akabuan hasi ziren Getxoko XXII. Antzerki jardunaldiak. Alabaina, asteburu honetan ere badago non gozatzetik. Urriaren 22an, Kanpingags antzerki taldeak *Ezetz Lepoa jarri!* lana eskainiko du Getxo Antzokian. Zapatuan, 3 antzerki-lan ikusteko aukera egongo da: Kapikua Teatrotan *Circo Kapikua*, Deabru Beltzak taldearen *Adi Adi* ikuskizuna - estrenaldi bakarra- eta Kanpingags-en *Ezetz Lepoa jarri!* lanaren gaztelarazko bertsioa. Domekan, ostera, beste 3 talderen ikuskizunak izango dira ikusgai: Hartzmuga Teatrotan *Klaketa*, Gus Marionetas-en *Cenicienta*, eta Tanttaka Teatrotan *Paradero desconocido* lan ezaguna.

## AURTEN ERE EUSKARAZ ESKAINIKO DIRA YOGA IKASTAROA

Egizu programaren bitartez, yoga ikastaroak euskaraz egiteko aukera dago Getxon. Yoga ikastaroa hasita dago dagoeneko, baina oraindik ere gura duenak bertan parte hartzeko aukera daukela adierazi dute arduradunek. Euskarazko yoga taldea San Nikolas ikastolan biltzen da, eta eskolak astelehen (20:00-21:30) eta eguaztenetan (19:30-21:00) izaten dira. Ikastaroak ekainera arteko iraupena dauka eta 25 euroko prezioa (20 euro Berba laguntzako). Bestalde, informazio gehiago gura duenak Aldai Kulturagunean dauden euskara elkartearen bulegora.

Harremanetarako: 94 491 43 57

**RENAULT ocasión**

## IBILGAILU IA BERRIEN GUNEA GETXON

“0 Km” dun ibilgailuak, Ibilgailu ia berriak eta Aukerakoak. **RENAULT**en bermearekin.

Getxo I Institutuaren ondoan

**RENAULT BILBO BERRI**  
Bizkerre/k. z/g - ALGORTA  
Tel.: 94 430 68 81  
Jon Arróspide, 20 - DEUSTO  
Tel.: 94 448 39 00

## Hamabi urte aldapan gora

Leioa mendi taldeak **250 bazkide** inguru ditu gaur egun. Eguneko zein asteburu osoko **mendi irteerak** antolatzen dituzte eta hori ezezik **liburu eta mapen bilduma** ederra osatu dute

**Leioako mendi taldeak** hamabostero mendi irteerak antolatzen ditu mendia eta natura gogoko dutenentzat. Euskal Herriko gailurrez gain Pirinioak, Picos de Europa, Guadarrama edo Iberiako Mendikatean barrena ibili dira 1992an taldea sortu zenetik.

Mendi Taldean lanean dabilen Javi Parisek gogoratu duenez, *“Taldea lagunarteko giroan sortu zen orain 12 urte mendizale batzuen artean, eta pixkanaka jendea animatzen joan da”*. Gaur egun, elkar- tea 250 bazkide inguruk osatzen dute.

Eguneko irteerak antolatzeaz gain, asteburu osorako zenbait txango ere prestatzen dituzte urtean zehar. Hala ere, Javi Parisek berak dioenez taldearen jarduna



Argazkian, mendi taldeko arduradunak

### «Mendigoizaleei Leioako mendi taldera hurbiltzeko dei egin diete»

ez da mendi ibilaldietara mugatzen: *“mendirako materiala (pioletak, kranpoiak, kanpadendak) alokatzen dugu eta liburu zein mapen bilduma ederra daukagu gure egoitzan”*. Bestalde, taldearen eguna ospatzeko, urtero Gipuzkoa aldeko sagardotegietan zein Arabako Errioxako upeltegietan bazkaria egiteko ohitura dute. Horietan,

*“urtean zehar 30.000 metro igotzea lortu edo 19 gailur zapaldu dituzten mendizale- ek sari berezia jasotzen dute”*. Eta antolatzen duten argazki lehiaketaren irabazlea ere aukeratzen dute.

Taldeko beste kide bat den Andrés Fernández-ek jendea mendi taldera hurbiltzera deitu nahi du: *“mendizaletasuna egon badago; jende askori gustatzen zaio mendira joatea. Lotsa alde batera utzi eta*

*taldera etor daitezela nahi genuke. Giro ona eta lagunak ziurtatuta daude”*. m

### Hurrengo irteera

- **Mendia:** Humarrero (1.437 m), Burgos
- **Noiz:** urriaren 24an
- **Izena emateko:** 689 721 917

## Berbalamiñe euskara elkarte

Azaroaren 11n egingo da elkarte **abian** jartzeko lehenengo batzarra



Jon Fano eta Eider Fernandez elkarte berriaren bultzatzaileak

**Leioako euskaltzale talde batek** lanean dihardu elkarte berri bat sortzeko asmoz. Helburua euskararen alde dabilen jendea elkartzea eta gure hizkuntzaren erabilera zabaltzea da. Jon Fano sustatzaileetako batek dionez, *“Leioan euskaraz arduratzen den jendea badago, baina, kasu askotan ez dugu elkar ezagutzen”*.

Uda partetik hona elkarte sortzeko lehenengo pausuak eman dituzte, azaroaren 11n egingo den batzar nagusian proposamenak mahai gainean jarri ahal izateko.

Batzar nagusi horretan, besteak beste, estatutuak, zuzendaritza kideak, elkartearen ildoak eta elkartearen izena bera ere onartu beharko dute bazkideek. Elkarteko kide izango den Eider Fernandezek esan digunez, hainbat izenekin bueltan ibili ondoren *“Berbalamiñe”* izena proposatu da.

Elkartearen lana batez ere aisialdiari begira zuzentzea pentsatu badute ere proposamen guztietara irekita daude; *“azaro-ko bilerara ekarriko diren proposamenak aztertu eta guztion artean elkartearen nora-*

*bidea erabakiko dugu”*. Izan ere, jendea elkartearen jardunean inplikatzeko da helburuetako bat.

### «Helburua euskararen alde dabilen jendea elkartzea eta gure hizkuntzaren erabilera zabaltzea da»

Leioako euskaltzale guztiak Batzar Orokorrean parte hartzea gonbidatu nahi dituzte Jonek eta Eiderrek, *“elkarte, euskararekiko zaletasuna bultzatzeko bilgunea izateaz gain, ondo pasatzeko eta jende berria ezagutzeko topagunea izatea nahi dugu”*. m

### EUSKARAZ IKASTEKO AUKERA UDAL MUSIKA ESKOLAN

Hasi berri den ikasturtean, zenbait musika tresna eta irakasgai euskaraz ikasteko aukera dago Udala Kontserbatorioan. Hemendik aurrera bibolina, tronpeta, txirula, pianoa, esku soina... ikasi nahi duenak euskaraz ikasteko aukera izango du. Musika Eskolako zuzendari Valentin Atxotegiren esanetan *“helburua urtez urte euskara eskaintza ugaritzea da; hemendik bost urtetara ia musika tresna guztiak euskaraz eskaini nahi digutu”*. Aipatzekoa da euskara zekiten irakasleez gain, zenbait irakasle euskaltegian ikasten dabiltzala etorkizunean musika klaseak euskaraz eman ahal izateko.

# ERROTULOAK

THE BEST  
UNE-UNEKO ERROTULOAK

ERA GUZTIETAKO  
ERROTULOAK  
egiten ditugu

e-mail: [hirustab@euskalnet.net](mailto:hirustab@euskalnet.net)

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

udondo  
taberna  
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2  
T: 94 463 00 45 - LEIOA



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07 • e-mail: [leioa@ikastola.net](mailto:leioa@ikastola.net) • [www.ikastola.net/ikasweb/leioa](http://www.ikastola.net/ikasweb/leioa)





Mikel Arieta-araunabeña Bustinza > Erandioko alkatea

“Momentu honetan ezin gara beste udalerriakaz parekatu, euren mailara heltzea da gure erronka”

**Altzagan jaio zen 1965ean, eta bederlatzi urte daramatza alkatetzan. Zuzenbidean lizentziatua da, eta Deustuko Unibertsitateko Enpresen Aholkularitza-juridiko eta Irlandako unibertsitateko Europako Zuzenbide masterrak eginak ditu.**



Argazkian, Mikel Arieta-araunabeña

—Zer egin gurako zenuke udalerrian, edor-zegatik egin ezin duzuna.

—Egindako gauza guztien emaitza ikusi gura nuke, fruituak jaso, alegia. Bestalde, udal-erri batuago bat ikustea gustatuko litzaidake; eta baliabideak kudeatzeaz gain, bizikidetzak kudeatzea lortu gura nuke hobera egiteko. Herri honetan, batzuen arabera gaur egun ez dagoen normalizazio politikoa lortzea nahiko nuke, auzoen arteko harremana eta bizikidetzak hobetzea, hau da, bizikidetzak normala izatea, denok egon gaitzela, pertsona eta ideia denak, ezberdintasunakaz, baina aniztasunean. Lortzen gaitzena, benetan, hori da.

—Egin al duzu egin gura ez zenuen zeozer?

—Gauza batzuk oso ziur egon barik egin ditugu, agian nik ez nituzkeenak egingo, baina egin behar dira, adibidez, administrazioaren jarrera eta gertakari batzuk arautu eta legezatzeko asmoz egindakoak. Bestalde, nik neuk ere kasu batzuetan ez dut zuzen jokatu, eta horrek nigan eragin izan du: zenbait auzitan ez naiz behar beste zorrotza izan, ondorioz, itxaropen faltsuak sortu ditut. Errakuntza batzuen aurrean aurpegia eman ez izanaz ere, alde batetik, damutzen naiz.

—Zelan bizi da euskara Erandion?

—Ni ingurune euskaldunean jaio nintzen, baina inguru horrek garai jakin batean euskara galdu egin zuen: gurasoek eta anaia nagusiak euskaraz berba egiten zuten, txikiok, ostera, ez. Beste alde batetik, auzo eta adin-tarte desberdinen arabera aztertu beharko litzateke udal-erria. Batetik, Astrabudua, Altzaga eta Lutxanan ematen den egoera; bestetik, nekazal eremukoa: Erandio Goikoa, Goiherri, hor

siek euskaraz berba egiten zuten, txikiok, ostera, ez. Beste alde batetik, auzo eta adin-tarte desberdinen arabera aztertu beharko litzateke udal-erria. Batetik, Astrabudua, Altzaga eta Lutxanan ematen den egoera; bestetik, nekazal eremukoa: Erandio Goikoa, Goiherri, hor

### “Erandioztarrek beste udal-erri batzuetara joateko beharra izan ez dezaten ahaleginduko gara”

euskara biziago dago eta. Hala eta guztiz ere, egoerak hobera egin duela uste dut, belaunaldi gazteek euskara jakin badakite, baina, egia da ere, berba egiterakoan erdara erabiltzen dutela. Kaleko errealitatea erdal-hiztuna da; errealitate akademikoa, ostera, euskalduna. Bi bide horiek nolabait uztartzeko, euskara kalean ere erabiltzeko, udalak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia martxan dauka.

—Zeintzuk dira Erandioren erronkak?

—Altzagako jendeak alde batera egiten du,

Astrabuduak bestera eta goiherrikoek beste batera, denak zelan elkartu igartzea da erronketa bat, baina gaitza da. Bilbotik 40 km-ra dagoen herri batean, zerbitzuen eskaintza zabal-herria bertan aurkitzen du jendeak, horrela, herritarren artean harremanak sortzen dira eta bizikidetzak bateratuagoa da. Baina, hemen, Bilbo metropolitanoa parez pare dago, Ezkerraldea eta Uribe Kosta ere oso hurbil... Erandioztarrek beste udal-erri batzuetara joateko “beharra” eduki ez dezaten ahaleginduko gara, baina bestelako eskaintza oso zabal da, oso gertu dago. Gainera, momentu honetan, Erandio ezin da beste udal-erriakaz parekatu, gure erronkarik handiena ekipamendu eta azpiegiturari dagokionez beste udal-erri mailara heltzea da. Bilboren menpe egondako 40 urteek Erandio “lotarako herri-gune” bihurtu zuten, Bilbori begiratzen zion alkatea zeukan.... Orduan, Erandio herri legez aukera asko galdu zituen, ondorioz, atzerakuntza historiko nabarmena dauka. Galdutako denbora hori berreskuratu behar dugu.

—Interesa ei dauka, zenbateko soldata duzu?

—Ondo ordaintzen didatela uste dut, Eudelek hitzartutakoa jasotzen dut. Espero nuen baino berotasun handiagoa jaso dut besteengandik. Garai batean, hastapenetan udalaren egoera ekonomikoagaz bat eginez gure soldatak jaitsi genituela zabaldu zen; gauzak hobeto doaz, eta apurka soldatak igotzen joan gara. m

## ERANDIO

- **Biztanleak:** 23.240
- **Herriaren azalera:** 17,56 km koadro
- **Udala:** 20 zinegotzi. EAJ-EA (12), PSE (5), PP (3), EB (1); Erandioztarrek 1 izango luke.
- **Euskaldunak eta ia euskaldunak:** 9.000 inguru (%38,7a)
- **Erdaldunak:** 14.200 inguru (%61,3a)

## Goiherri sokatira talde mundiala

Klubaren arteko txapelketan **munduko txapel-dun** eta selekzioen lehiaketan **euskal selekzioaren aldarrikatzaile**

**Klubaren urrezko domina** lortu zuen Goiherri irailean Estatu Batuetako Rochester hirian jokatu zen lur gaineko munduko sokatira txapelketan. Selekzioen atalean, baina, Laukizko Gaztedi eta Erandioko Goiherri taldeko tiralariak osatutako selekzioak Espainiaren izenean tiratu behar izan zuten Euskal Selekzioak ez duelako lekuri izan. Gauzak horrela, aurretiaz hartutako erabakiari eutsi zioten: nahita galdu zuten. Goiherrikoek euskal selekzioa aldarrikatu zuten. Taldekideen arlo fisikoaz arduratzen den Abelekin egin dugu berba.

### «Protestatzeko selekzioen finala nahita galdu zuten goiheritarrek»

—Kontaguz apur bat zein izan dan Goiherri taldearen historia.

—Taldea duela 27 urte edo sortu zan eta 89an Suedian munduko txapel-dunorde geratu zan lur gainean. Gero, munduko txapel-dun izan zan goma gainean. Baina horren ostean taldea ez da goian ibili eta hor egon dira 12-13 urte horrelako garai-pan handirik lortu barik. Orain lortu dugu.

—Zer egin behar izan dozue hori lortzeko?

—Oraingo taldean gagozanok 8-10 urte daroaguz alkarregaz eta normalean astean lau egunetan entrenaten dogu, pretenporadan igual bost egun, Soka hiru egunetan eta egun bat edo bi fisikoa egiteko.

—Zein kategoriatan tiratzen dozue?

—560, 640 eta 680 kiloko kategoriak izaten dira. Euskadin 600 kiloko be badago, baina kanpoan ez. Laz goma apur bat egin genduan forma ez galtzeko, denboraldia luzatzeko eta lurrean fuerte egoteko, baina ostantzean lurrean egiten dogu eta 560 kilokoan lortu dogu urrea. Horretan ibiltzen gara batez be.

—Ezer aldatu da zuentzat mundialaren ostean?



Erandioko tiralariak herriko pilotalekuan

—Bai, jakina. Urte asko egon gara beste generazinoaren azpian, haiek onenak izan ziran eta orain erreleboa hartu dogu eta ea lortzen dogun Euskadiko txapela lur gainean. Hori da falta jakuna.

—Eta zelan izan zan selekzioaren arteko txapelketa? Zuek Espainiaren izenean tiratu zenuen, ezta?

—Bai, baina hemendik urten aurretik Gaztedigaz geratu ginen konbinatu bat egin eta finalera ailega ezker, aurkariari irabazten itxiteko eta hala egin zan. Finalera ailega eta itxi. Oso gogorra izan zan, negarrez eta dana. 21 herrialde onenak han ziren eta ailegatzen zara hara, eta, itxi egin behar. Baina protesta bat izan zan, ezin dogu-eta beste modu batera protesta.

—Nondik atara dozue AEBetara joateko dirua? Badaukazue babeslerik edo?

—Bizkaiko txapelketan atara genduan diru apur bat eta gero, jaietan txosna imini, loteria eta kamisetak saldu eta horrela ateraten dogu dirua. Udalak eta Eusko Jaurlaritzak be emon deuskue dirua. Lehen euki genduan babeslea, orain ez. Ea mundiala irabazita baten bat ateraten dan. m

## BERBOTSSEN ANTZEZLANA HILAREN 28AN

Urriaren 28an, 20:30ean, “Nora hoa neska” komedia eskainiko du Txirene antzerki taldeak, Altzagako posta bulegoa zen lokalean. Edurne Agirrezabala eta Begoña Amonarriz egongo dira aktore lanetan. Berbots Erandion Euskaraz taldeak “Zaharrak berri xou” bertso emanaldiarekin eman zion hasiera aurtengo ikasturteko ekitaldi sortari, eta antzerki saioa izango du bigarren eskaintza. Sarrera doan.

## ALBERTO IÑURRATEGI ETA JUAN VALLEJO ASTRABUDUAN

Atxazpe mendi taldeak XIII. Kultur Astea antolatu du urriaren 19tik 24ra. 19an eta 20an, argazki makina zaharren erakusketa izango da eta 21ean eta 22an bonsaien erakusketa. Eguaztenean, Juan Vallejo K2 mendira egindako espedizioari buruzko ikuskizuna eskainiko du eta, eguenean, Alberto Iñurategi “Hire Himalaya” ikuskizuna. Barikuan bonsaiei buruzko hitzaldia emango du Bety Andres andreak. Emanaldiak Josu Murueta kultur etxean izango dira arratsaldeko 19:30ean eta erakusketak 18:00etatik 20:00etara bitartean egongo dira zabalik. Zapatuan, perretxikoak batuko dira eta domekan perretxikoaren erakusketa.

## TXOPEL: GAZTEEI ETA IKASLEEI ZUZENDUTAKO ALDIZKARIA

Ikasleei eta, oro har, sopoloztar gazteei zuzendutako Txopel aldizkari berria plazaratu du Sopelanako udalak. Informazio, Komunikazio eta Turismo sailetik koordinatuko da hilabetekari berria, baina ikasleen parte-hartzea beharrezkoa dela jakinarazi dute arduradunek. Aldizkaria elebiduna bada ere, euskarak lehentasuna daukala adierazi dute. Ikasleek euren lanak argitaratzeko txokoa izateko asmoagaz jaio da Txopel, eta horren ildotik, gazteriarentzako informazio puntu erabilgarria izan gura du.

## UDAGOIENKO JAIA ETA TXOPEL SARIEN BANAKETA HILAREN 29AN

Sopoloztarrek udazkenari ongiatorria jai batez egingo diote. Udazkeneko Jaia urriaren 29an ospatuko da Udaletxeko plaza inguruan eta Urko kiroldegian. Aipatzekoa da, besteak beste, 19:30ean Txopel sariak banatuko direla Hall-Kulturalean. Bestalde, Urko kiroldegian hainbat jarduera egingo dira: paintball, aerobic, lantegiak, Play Station... eta abarrez jolasteko aukera egongo da. Eta alkohol bako diskotekak emango dio amaiera jaiari.

## ALOKAIRUA SUSTATZEKO, ZERGA BEHERAPENAK

Hutsik dauden etxebizitzak alokatzea bultzatzeko asmoagaz, Sopelanako udalak etxebizitza hutsen jabeek abantailak eskainiko dizkie; esate baterako, Eusko Jaurlaritzako Bizibide-ren bitartez etxebizitza alokairuan jarri gero, Ondasun Higiezinaren gaineko zerga %50 merkeagoa izango da. Ostera, etxebizitza hori hutsik mantenduko dutenek gehiago ordaindu beharko dute, "udako etxebizitza" delakoan jabeek izan ezik. Horrekin batera, izateko bikoteen zergak bestelako bikoteen parekoak izatea ere bultzatuko du udalak, eta energia alternatiboak ezartzen dituztenei lagundu.

## Hondartzen inguruko neurriak

Aparkaleku eta pasabidearen auzia erabakita



Barinatxe hondartzako aparkalekuan sartzeko ipini duten hesia

**Sopelanako udalak** Barinatxeko aparkalekua eta Arrietarako pasabidearen inguruko auziak konpontzeko neurri berriak hartu ditu.

Barinatxeko aparkalekuari dagokionez, uda garaian bakarrik izango da ordaintzekoa. Alabaina, Informazio, Komunikazio, eta Turismo zinegotzi Ricardo Ibarrek azaldu legez, "uda honetan ordaintzeko sistemaren inguruan herritarrek plazaratutako desadostasunak ulergarriak dira, aparkatuta 2 ordu ematen dituen autoak 8 ordu ematen dituenak beste ordaindu behar izatea ez dago ondo, eta neurri hori hobetu behar dela uste dugu". Horregatik, datorren udaldiari

begira T.A.O edo antzeko sistema bat ipiniko dutela iragarri dute, hau da, ordaintza aparkatuta egondako denboraren arabera izango da.

### Pasabidea itxita urte osoan

Arrietara hondartzako pasabidea, ostera, ibilgailuei itxita egongo da urte osoan zehar. "Pasabidea oinezkoentzat besterik ez izatea neurri egokia dela ebatzi dugu, herritarrek nahiko ondo onartu dute eta, ondorioz neurri horrek indarrean jarraituko du urte osoan". Halaber, ez dute hesirik jarriko, goratutako gune bat egin eta urrutiko gailu baten bitartez erabiltzaileek jaitsi dezaketen pibote bat. m

**Maria Luisa Bilbao** > 50 urte ileapantzaile Larrabasterran

"Nik domeketan ere egiten nuen lan, gauerdia arte, jan barik, oraingoek ez!"



Argazkian, Maria Luisa Bilbao

**Urgitxietas baserrian** jaio zen Maria Luisa Bilbao orain dela 70 urte. 18 bat urte zituela amak baserriko gelatxo bat atondu zion eta bertan hasi zen ileapantzaile lanetan. Urteak aurrera joan ahala gela txiki lotu eta beste lokal bat erosi zuen, ordutik eta orain dela gutxira arte larrabasterrarrak orrazten jardun du.

50 urte eman ditu ileapantzaile Larrabasterran, eta urte batzuk dira Artimoda ileapandegiko artazi, tindagai eta orraziak Albertito semearen eskutan utzi zituela. Berak aitortu legez, "kosta egiten zait ileapandegitik ez pasatzea, askotan etortzen naiz bisitan". Gaur egun ere, "betiko bezeroek" Maria Luisa baino ileapantzaile "hobeagorik aurkitzea oso-oso gaxa" dela diote. Hasierako bezeroak berbetan, hastapenetako oroitzenak ekarri ditu gogora Maria Luisak.

Plentziako ileapantzaile baten eskutik ikasi zituen ikasi beharrek, eta orduko gertakari barregarriak ere gogoan dauzka: "behin bezero bati belarri zatitxo bat ebaki nion, eta lurrera begira, lasai egoteko, belarri zatia aurkitu eta ostera ipiniko niola esan nion". Baina, atzera begiratzerakoan gauzak aldatu direla ere badakusa.

### Lanbidea aldatu egin da

Gaur egun, bezeroak apur bat "zorrotzagoak" direla uste du, "lehen oso guapa zaude esan eta pozik joaten ziren". Eta lanbidea lasaigo hartzen dutela ere ikusten du: "lanordu jakin batzuk dituzte, horietatik kanpo ez dute bezero gehiago hartzen, nik domeketan ere egiten nuen lan, askotan ez nuen ezta bazkaltzen ere, bezeroen etxetara joaten nintzen, gauerdia arte lanean..." m

**LAIK**  
Taberna

Bentatxu, 2  
48600 Sopela  
Tlf. 94.6760328

Instalazio elektrikoak  
**Electro LAIA**

Larrialdi Zerbitzua 24 orduz  
**670 415 732**

LARRABASTERRA

Konpromisorik gabeko aurrekontuak / komunitate, lantegien...  
mantenimendua / etxebizitza, lonja, pabiloien erreformak /  
bonba hidraulikoak / telefonia, ahots eta datuen sareak

**ANDER DEVNA**  
**IKASOLA**

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana  
Tfnoa.: 946760266 - Email.: sopela@ikastola.net

**4 bide**  
pinturak



**RIPOLIN**

**BONDEX**

**DYRUP**

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA  
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

moda gaztea  
opariak

**IRATI**

Torreña 2, ALGORTA  
T.: 94 491 12 71



## Basolanak

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa  
**DEITU!**

T. 94 467 17 13  
F. 94 467 42 41  
ERANDIO (Bizkaia)  
Mobila  
Asier: 629 411 838  
e-posta: basolanak@terra.es

## FUTUROSCOPE-RA BIDAIA ANTOLATU DU KULTUR ETXEAK URRIAREN 29TIK AZAROAREN 1ERA

Berangoko Kultur Etxeak Futuroscope-ra (Poitiers) bidaia prestatu du, irteera urriaren 29an izango da eta buelta azaroaren 1ean. Bidaian, "Irudiaren Europako Parkea" ezagutzeaz gain (bi egunetarako sarrerak barne), Loyrako gazteluak ikusteko aukera ere egongo da. Gela bakoitzeko pertsona kopuruaren arabera da bidaiaren prezioa: lagun kopurua gero eta handiagoa izan, bakoitzaren prezioa merkeagoa da, adb. 4 lagunentzako 99 euro balio du, bakarrarentzako 122 euro.

Informazio gehigarria: 94 668 21 43



## OSTALARITZA-ZERBITZU ETA DENDA BERRIEI BULTZADA

Herian saltoki eta ostalaritza-zerbitzu berri gehiago zabal daitezzen, Ekonomia Jardueran gaineko zerga ez igotzeko erabakia hartzen dabil Berangoko udala. Arlo horretako BEZA bere horretan mantenduko luke datorren urteari begira, inolako igoera egin barik. Helburu hori gauzatzeko eskainiko litzatekeen beste abantaila bat zaborren zergaren balioa mantetzea izango litzateke. Kontsumorako Prezioen Indizeak (KPI) izango duen igoeraren arabera hazkundea jasango lukete bestelako udal zergek, aurreikusten denaren arabera, %3,2ko igoera.

## Endika Basaguren

Artista berangoztarra



Endika Basaguren Berangoko Kultur Etxean ipini duen erakusketan

**Pasadan astean** bere lana ezagutzeko aukera izan zuten herriko kultur etxera hurbildu zirenek, herritarren aurrean bere lana aurkeztu duen lehenengo aldia da. Herritik Madrilerako bidaia etengabe egiten du Endika Basaguren, EHU-n Arte Ederretan lizentziatu ostean, gaur egun, Madrileko Complutense unibertsitatean dabilelako doktoretza egiten. *Futbolearen olgetan ez dakitenen bidea da artea*, izena eman dio erakusketari 26 urteko berangoztarrak, eta hona azalpena: *"publizitatea erakartzeko egokia begitartzen zait, jendeak horrelako izenburua irakurrita baliteke erakusketa ikus-terea animatzea, arreta deitzeko era bat da;*

*bestalde, gaitzespena ere bada, zorritzarrez, herri honetan futbolari, masen kultura horri, garrantzi handiagoa ematen zaio benetako kulturari baino".*

### 17 sormen-lan ikusgarri

Erakusketa 17 sorkuntzek osatzen dute, 2 argazki, 11 margo eta 4 eskulturrek. Margoak abstraktuak dira, *"eskultore baten begiek pintura zelan ikusten duten adierazten dute"*, azaldu du Basaguren. Eskulturak, oster, harriz, igeltsuz, poliesterez eta brontzez eginda daude. Berangon erakusten duen lehenengo aldia da baina, besteak beste Getxo Arte, Bilbo, Bartzelona eta Madril en ere erakutsi du. m

Rafa Larrauri > Txakolingilea

"Beti eduki dut txakolina egiteko ilusioa, baina dirua batu eta lurra lortu arte..."



Argazkian, Rafa Larrauri mahatsondo artean, Lemoizen

**Orain dela 5 urte** landatu zituen mahatsondoak Lemoizen Rafa Larrauri getxoztarrak, eta 2001ean jaso zituen lehenengo fruituak, 400 bat txakolin botila. Uza urtero handituz joan dela-eta pozik dago Larrauri, *"iaz 2.200 botila bete genituen, eta aurten 2.500 botilako muga gainditzea espero dugu"*.

Txakolina egiteko ilusioa betidanik eduki du Larrauri, baina berak aitortu legez: *"dirua batu eta lur-saila eskuratu arte ez naiz egitera ausartu, ilusioa beti, baina hori lortu arte ez dut erronka onartu gura izan"*. 6.000 metro koadroko lur saila dauka Lemoizen, 1.000 bat mahatsondo. Joan den astean hasi ziren Haizea izeneko txakolina ekoizteko mahatsa biltzen. Txakolinaren deitura alabaren omenez aukeratu duela azaldu digu Larrauri. Mahats-bilketa ondorengo eginbeharrak,

txakolina ekoizteko mahatsa lantzea, Mungia upeltegi baten esku uzten du Larrauri. *"Nekazal-azoka batean ezagutu nuen Mungia upeltegiaren lana, eta oso gustuko izan nuen, horrek ere lagundu zidan txakolina egiteko erronka onartzen"*. Haizea txakolina Bizkaiko Txakolinaren egitasmo edo markaren barruan dago, baina momentuz ez dago salgai, Larrauri etorkizunean saltzeko asmoa esku artean badarabil ere.

**Uza ona, baina galerak egon dira** Aurtengo uza ona izango dela iragarri du Larrauri, goxoa. Hala ere, ekoizpenaren %25a galdu duela diosku: *"udan askotan garoa eta bezetasun handia egon da, eta gaitortu egin dira mahats-erbola batzuk, baina uza polita jasoko dudala uste dut"*. m

KURKUDI LIBURU DENA  
Euskarazko irakurgai  
Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA  
T: 944 913 402

TXIBERRI edantokia frontoi partikularra  
Aita Gotzon 4, URDULIZ  
T: 94 676 07 15

BASTARTEA  
URDULIZ  
Teléfono: 946 761 128

Ajuria taberna  
Andrés Cortina 2  
ALGORTA

BEROGAILU ETA ITURGINTZA  
HIRURAK  
T: 430 53  
Sarrikobaso 15

ETXEKO? ELEKTROTRESNEN? KONPON -  
SERVITEC  
Lacofris, s.l.  
Y MARKA GUZTIAK  
Y 24 ORDUTAN ERANTZUNA  
Y 3 HILABETEKO GARANTIA  
Y 25 URTEZ ZURE ZERBITZUA  
& 94 430 52 00 Kasune, 18 - ALGORTA

OSAE IDE? HORTZ? KLIMIKA  
Aranza Ezebarria  
Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
Periodontzia  
PEDI  
Bidebarri 27, behea eskuinean ALGORTA 94 94 430 76

## MANKOMUNITATEA

## Agenda 21 egitasmoa aurkeztu du Mankomunitateak

Uribe Kostako Mankomunitateak (Plentzia, Gorniz, Lemoiz, Barrika Urduliz, Berango, eta Sopelana) Tokiko Agenda 21 egitasmoaren bigarren zatia aurkeztu berri du. Agenda 21 egitasmoak udalerrien garapen orekatua lortzeko oinarriak zehaztea dauka helburu. Egunotan egitasmoa herritarrei aurkeztu eta azaltzeko asmoa daukate arduradunek, eta besteak beste, herritarrek egitasmoan parte har dezaten ere foroak antolatuko dituzte.

Uribe Kostako Mankomunitatea osatzen duten 7 udalerririk garapen orekatu bat gauzatzeko oinarriak finkatu nahi dituzte Agenda 21 egitasmoaren bitartez. Egitasmoaren bigarren zatia martxan dago dagoeneko, eta prozesu honetan hurrengo urratsak daude: udalerririk bakoitzeko ingurumenaren eta egoera sozioekonomikoaren diagnostikoa egin, eta ostean, hortik ondorioztatutakoak kontuan hartuz, ekintza planak osatu. Diagnostikoa osatzeko informazio-bilketa eginda dago



Eskualdea Barrikatik ikusia

dagoeneko, eta urtarrietik aurrera, ekintza planak adosten hasiko direla aurreikusten dute arduradunek.

Bestalde, Tokiko Agenda 21 egitasmoa ezagutzera emateko helburuagaz, herritarren artean egitasmoa azaltzen duten orriak banatuko dira eta informazio kartelak ipiniko dira udalerririk guztietan. Horrez gain, helbide

elektroniko bat ere badago herritarren zerbitzura, egitasmoaren berri sakonago emateko. Herritarren parte hartzea beharrezkoa dela adierazi dute 7 udalerrietako arduradunek, hartara, partaidetza bultzatzeko asmoagaz, hainbat foro edota topagune antolatuko direla jakinarazi dute. m

Informazio gehiago: [www.urkobe.net](http://www.urkobe.net)

**aldai**

**TAPIZTEGIA**  
**DEKORAZIOA**  
**ERAKUSKETA**  
**ETA TAIERRAK**

Basagoiti etorbidea 32  
Tf: 460 90 31  
48990 ALGORTA

**VASA**

20<sup>o</sup> ANIVERSARIO URTEURRENA

KLIMATIZAZIO  
INGENIARITZA  
INSTALAZIOA  
MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114  
48640 Berango, Bizkaia  
tel. 94 668 15 51  
Taxa. 94 66829 92  
e-mail: [vasa@euskalnet.net](mailto:vasa@euskalnet.net)

AENOR Empresa Registrada ER-1891/2001  
AENOR Gestión Ambiental CGM-02/006

## Urriak 20-31

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz) • Tel.: 94 491 13 37 • Faxa: 94 491 58 31

## ERAKUSKETAK

## GETXO

► **Nestor Basterretxearen eskulturak eta Amable Ariasen eta Juan Miegen margoak.** Bosteko04 erakusketa ibiltariaren barruan. Erromoko Kultur Etxean. Urriaren 30era arte.

► **Edergintza taldearen olioien erakusketa.** Algortako Kultur Etxean. Urriaren 30era arte.

## PLENTZIA

► **Erik Marloo-ren margolanak.** Goñi Portal kulturala. Urriaren 30era arte.

## GORLIZ

► **Javier Lombana-ren arte erakusketa.** Erakustaretoa (Eloisa Artaza kalean). Urriaren 24ra arte.

## ERANDIO

► **Hire Himalaya.** Josu Murueta Kultur Gunea. Urriaren 25etik azaroaren 5era arte.

► **Antzinako kameraren erakusketa.** Josu Murueta Kultur Gunea. Urriaren 25ean eta 26an.

► **Bonsai erakusketa.** Josu Murueta Kultur Gunea. Urriaren 28an eta 29an.

## BERANGO

► **Iñaki Alvarez-en "Dibujos" lana.** BBKren erakusketa mugikorra. Urriaren 18tik 30era arte.

## ZINEMA

## GETXO

► **Las invasiones Barbaras.** Zine-Kluba. Getxo Antzokian urriaren 20an, eguaztena. Areetako Gran Cineman urriaren 21ean, eguena. 19:30. Sarrera: 2,60 euro.

► **21 gramos.** Cinema Paradisoren 04-05 denboraldi hasiera. Azpitoludun jatorrizko bertsoan. Getxo Antzokia. Urriaren 29an, barikua. 22:00. Sarrera: 2,60 euro.

► **SHREK II.** Haur Zinemaren 04-05 denboraldi hasiera. Getxo Antzokia. Urriaren 31n, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 1,90 euro.

## PLENTZIA

► **Sylvia.** Helduentzako zinema. Goñi



Jose Antoni Agirre bere familiagaz aspaldiko argazki batean

## ► Erakusketa

## "Pro libertate patria... Jose Antonio Agirre"

Eusko Jaurilaritzako lehenengo lehendakaria izan zen Jose Antonio Agirre, lehenago berriz Getxoko alkatea. Aurten bete dira 100 urte jaio zenetik, eta hori gogoratzeko Sabino Arana fundazioaren Euskal Nazionalismoaren Museoak, Getxoko udalaren laguntzagaz, Agirrearen bizitza eta ideien gaineko erakusketa antolatu du. Erakusketa Torrene kaleko BBKren egoitza zahararen ipini dute ikusgai, eta ondorengo ordutegian bisitatu daiteke: astegunetan 10:00-13:00 eta 17:00-21:00, eta zapatuetan 11:00-14:00 eta 18:00-21:30.

• **Non:** Torrene kaleko BBKren aretoan • **Noiz:** Azaroaren 17ra arte.

Portala. Urriaren 22an, barikua. 22:00.

► **Doce en casa.** Gazteentzako zinema. Goñi Portala. Urriaren 23an, zapatua. 18:00.

► **El abrazo partido.** Helduentzako zinema. Goñi Portala. Urriaren 29an, barikua. 22:00.

► **El sebreto de los Mc Cann.** Haurrentzako zinema. Goñi Portala. Urriaren 30ean, zapatua. 18:00.

## BERANGO

► **Kill Bill vol.I.** Gazteleku. Urriaren 23ean, zapatua. 17:30.

► **Los lunes al sol.** Helduentzako zinema. Berangoetako Kultur Etxean. Urriaren 24an, domeka. 19:00. Sarrera: 1 euro.

## ANTZERKIA

## GETXO

► **Ezet lepoa jarri!** Kanpingags taldearen eskutik (euskaraz). XXII. Antzerki Jardunaldien barruan. Getxo Antzokia. Urriaren 22an, barikua. 20:00. Sarrera: 8,5 / 6,5 euro.

Antzerki Jardunaldien barruan. Getxo Antzokia. Urriaren 23an, zapatua. 20:00. Sarrera: 8,5 / 6,5 euro.

► **Klaketa.** Hortzmuga Teatroyen eskutik (euskaraz). XXII. Antzerki Jardunaldien barruan. Algortako Geltoki plaza. Urriaren 24an, domeka. 13:00. doan.

► **Cenicienta.** Gus Marionetas-en eskutik (erderaz). XXII. Antzerki Jardunaldien barruan. Areetako Andres Isasi Musika Eskola. Urriaren 24an, domeka. 18:00. doan.

► **Paradero desconocido.** Tanttaka taldearen eskutik (erderaz). XXII. Antzerki Jardunaldien barruan. Getxo Antzokia. Urriaren 24an, domeka. 20:00. Sarrera: 8,5 / 6,5 euro.

## ERANDIO

► **Nora hoa neska.** Txirene taldearen eskutik. Berbots Erandion Euskara elkarteak antolatuta. Altxagako postetxearen lokal zahararen. Urriaren 28an, eguena. 20:30.

## BESTEAK

## GETXO

► **XXIV. Aste koral.** Getxo Antzokia. Urriaren 26tik 29ra. 19:30. Sarrera: gonbidapen bidez, Kultur Etxean hartu daitezke.

## SOPELANA

► **Udaberri jai.** Txopel sariaren banaketa eta beste hamaika ekitaldi. Hall-Kulturalean eta Urko kiroldegian. Urriaren 29an, barikua.

## ERANDIO

► **Hire Himalaya hitzaldia.** Alberto Iñurrategi izango da hizlaria. Atxazpe mendiko taldeak antolatuta. Josu Murueta Kultur gunea. Urriak 21, eguena. 19:30.

**namaika hida**

zenbat gara elkarte

San Vicente 2  
4. solairua  
48001  
94 423 75 91

1 Kafe Antzokia Bilbo  
2 Kafe Antzokia Ondarroa  
3 Ondarroako Arrigorri itsas ostiatua  
4 Algara konpartsa  
5 Zaparrada Gaztegunea  
6 Olgetan Umegunea  
7 Elkartearen zerbitzu, ikastaro eta tailerrak  
8 Bakaikuko etxea  
9 Bilbo Hiria irratia 96.0 Fm  
10 Zenbat Gara aldizkaria  
11 Gara argitaletxea

namaika aukera





GALEA, 1995

## Galea

Lobo Altuna

Hauxe duzue Lobo Altuna argazkilari handiak helarazi digun irudi panoramiko enigmatikoa. Galean hartu zuen orain dela hamar bat urte.

[berbetan]

Ana Urkijo, 50 urteko abokatu bilbotarra, Athleticen zuzendaritza berria dauden andra bietako bat da. Ez dauka kargu makala, bigarren presidenteordea da eta. Hamabost urte bete zituen egunean, Athleticen bazkide-kameta oparitu zioten “bizitzan gehien poztu nauen oparia” dela dio, baina ordurako ondo ezagunak zituen San Mameseko harmailak. Urkijo ez da berria talde zurigorriaren zuzendaritzan: 1990etik 1994ra José Julián Lerbundiren taldeko kidea izan zen. Orduan, Athleticen zuzendaritzara ailegatu zen lehenengo andrea izan zen, eta estatuko lehenengoetakoa. Euri ugari bota du ordudani, baina futbolak gizonen mundua izaten jarraitzen du.

# Ana Urkijo

## Gizonen gotorlekuko bihotzetik

Testua: **Unai Brea**

—Orain andrazkoak gehiago hurbiltzen dira futbolera, baina zure gaztaroan ez zen batere ohikoa. Zelan ailegatu zinen futbolzaletasunera, zelanbait esateko?

—Ez daukat neba-arrebarik, eta nire aitak biziro maite zuen Athletic. Izan ere, presidenteordea izan zen 1977tik 82ra. Ni oso txikitatik eroaten ninduen San Mamesera, eta ez San Mamesera bakarrik, inguruan jokatzen ziren erregionaleko partidu guztietara ere bai. Balo bati ostikoak zelan ematen zizkieten ikustea zen kontua. Horrek modu bitan eragin ziezadakeen: adorez gorrotatu, inposatu zidatelako, edo adorez maitatu. Bigarrena gertatu zitzaidan. Nire taldea Athletic da, baina futbolala gustatzen zait oro har.

—San Mamesera joaten hasi zinenean, andra bakanetakoa izango zinen...

—Hara, ez naiz gogoratzen nire umezaroan emakume gehiago joaten ziren ala ez. Baina arraroa izango nintzen, bai. Gogoan daukat helduagoa izanda andra gehiago zegoela. Dena dela, uste dut Athleticetik beti eduki dituela andrazko zale asko. Jakina, orain askoz gehiago dago; andra asko dira bazkide eta emakume taldea eta guzti daukagu.

—Eta zelan ailegatu zinen zuzendaritza-

ra, zale huts izatetik?

—87an abokatu elkarteko zuzendaritza batzordean egoteko deitu zidaten. Ordura arte, han ere ez zen emakumerik egon. Erronka polita begitandu zitzaidan eta sartu egin nintzen, gizonezko inguratuta noski. Baten bati atentzioa eman zion horrek, nonbait. 90eko hauteskundeetan deitu egin zidaten, eta ezuste galanta hartu nuen. Nik uste nuen kanpainan laguntzeko deitzen zidatela, baina harrিতa geratu nintzen zuzendaritza taldean egoteko proposatzen zidatela ikusita. Gero hauteskundeak irabazi genituen eta...

—Eta zelakoa izan zen lehen saio hura?

—Oso ona. Momentu batzuetan zaila ere

taldea ordezkatzeko du bidaiarekin. Atentzioa ematen duten gauza horiek guztiak, azken batean.

—Futbolak gizonen eremua izaten jarraitzen du, zelangura ere...

—Bada uste bat: futbolaz aditzeko balo bati ostikoak eman behar izan dizkiozula aurretik. Eta andrazkoak, jeneralean, ez dugunez futboleko jokatu... Seguruenik nik ez daukat futboleko jardun duen baten ikuspegi bera, baina horrek ez du esan gura neure iritzia ez daukadanik. Bestalde, zuzendaritza talde batean egoteko, futbolaz ez ezik, kudeaketaz jakin behar da, Athletic futbol taldea delako, baina enpresa ere bai, azken batean.

### “Uste dut Athleticetik beti eduki duela emakumezko zale asko”

bai. Bat-batean emakume bat ailegatu zen zuzendaritzara, eta bazterrak apur bat nahastu ziren. Onartu egin nuen prozesu bat egon behar zela; zorionez, neuk abiarazitako prozesu horrek, gerora, Athletic-eko zuzendaritzan andrazko gehiago egotea ahalbidetu du, ni neu barne, gaur egun. Orain elementu berria dago, gainera: andrazko bat presidenteordea da, eta

Enpresa berezia, baina enpresa. Uste dut zuzendaritza taldeek gizartean ematen den errealitatea islatu behar dutela, eta emakumeok bagaude gizarte eremu guztietan, beraz zuzendaritzetan ere egon behar dugu. Gizonezkoek eta gizonezkoentzat egindako mundu batera ailegatu gara. Niri gauza asko ez zaizkit gustatu, jakina, eta adierazi egin dut, baina azkenean



**BIZARRA LEPOAN**  
EUSKARA ELKARTEA

## AEROBIC IKASTAROAK EUSKARAZ



**NOIZ**  
URRITIK EKAINERA  
BITARTEAN · ASTEAN 3 EGUN  
(ASTELEHEN, ASTEARTE ETA  
OSTEGUN)

**ORDUA**  
20:30ETIK 21:30ERA

**PREZIOA**  
20 EURO BAZKIDEEK ETA  
25 EURO EZ BAZKIDEEK  
(HILABETERO)

**LEKUA**  
SAN NIKOLAS IKASTOLA

**IZENA EMATEKO**  
94 491 43 57  
BIZARRALEPOAN@EUSKALNET.NET

BIZARRA LEPOAN EUSKARA ELKARTEA  
KARITATEA 1, ALGORTA

[berbetan]

andrentzako lekua irabazten joateko modu bakarra bidea egitea da, ekinez. Atzera begiratuta, neuk egindakoa etorkizuneko belau-naldiei bidea errazteko balio dezakeela ikusten dut.

—Andra bat Athleticen presidente izatera ailegatu ahal izango da inoiz?

—Zergatik ez? Emakumeok gizarte eremu guztietara ailegatu ahal izango garela espero dut, eta ez bakarrik Athleticen presidente

### “Athleticek handigura izan behar du; bat dator taldearen filosofiagaz”

izatera; andrak eta gizonak ez, baizik eta pertsonak egongo diren momentua helduko dela.

—Taldekako ordezkari nagusi legez joan zinen Sevillara, Betisen aurkako partidua jokatu zenean. Teresa Rivero kontuan hartu barik, Espainiako Ligaren historian hori egiten duen lehen andrazkoa zara behar bada. Zer moduz joan zen?

—Ni pertsona normala naiz eta normaltasunez jarduten dut. Orduan, erantzunak ere halakoak izaten dira. Fernandok [Fernando Lamikiz, Athleticen presidentea] neu joango nintzela esan zidanean, ez nintzen urduri jarri. Ahalik eta ondoen egin nuen, lasaitasunez, eta erantzuna oso ona

### “Futbolearen denak dauka gehiegizko balioa: jokalarien fitxak, telebistak...”

izan zen. Zer egingo duzu Loperagaz?, galdetzen zidaten. Bada, zer egingo dut? Agurtu, Fernandoren partez besarkada bat eman, eta kitto. Bitxia bada ere, taldekako ordezkari nagusia nigar zihuan zuzendaritzako kide bat zela pentsatu zuten hangoek, oraindik dauden aurreiritzi horientzat. Baina gure protokolo arduradunek dena argitu zuten, eta ez zen arazo gehiagorik egon. Gauza bakarrak atsekabetu ninduen: taldeak galdu egin zuela.

—Bide batez, eta Teresa Rivero aipatu dugunez... Uste duzu haren irudia erabili

dela zuzendaritzetan dabilzan emakumeen irudia lokazteko?

—Sevillan galdetu zidaten gauzetako bat, hain zuzen, ea Teresa Rivero bezalakoak izango nintzen izan zen. Nik ez dut Rivero andrea ezagutzen, eta ezin dut berataz berbarik egin, ez onerako ez txarrerako. Ni Ana Urkijo naiz eta Athletic ordezkatzan dut.

—Fernando Lamikiz Athletic handigura izan behar dela esaten dabil. Taldea lehiat-

zen den baldintzetan, errealitateagaz bat etortzea da hori?

—Nik uste baietz, Athleticen oso talde ona daukalako gaur egun. Zaleok, taldea barrutik zein kanpotik bizi dugunok, badakigu zer den Athletic. Athleticen beste talde batzuetatik bereizten dituen ezaugarri batzuk dauka, eta zaleek onartu egiten dute, hortik datorrelako klubaren handitasuna, batzuetan miseria bihurtzen dena, kirol-emaitzak onak ez direlako. Baina badakigu Athleticen zikloak dauzkala. Eta oraintxe talde ona daukagu. Handigurak izan behar dugun? Jakina. Beti. Ondo zein txarto gabiltzanean. Klubaren filosofiagaz koherentea da.

—Futbol kontuak neurritz kanpo dabilza. Ados?

—Bai, baina gizarte osoko kontuak legez. Kontsumozalekeria itzela dago, marketingak agintzen du, eta futbolaren inguruan diru asko mugitzen da. Horrek guztiak, azkenik, abiadura handian ibiltzea eragin digu. Denak dauka gehiegizko balioa: jokalarien fitxak, telebistak... Gu ere bide horretan sartuta gaudela, bolantea oratzea beste irtenbiderik ez daukagu. Gura baino arinago ibili arren, behintzat geuk gidatuko dugu autoa. m





Pentsa ezazu egunero oinez egiten duzun ibilbidetxoan bost metro altu den horma paratu dutela. Pentsa ezazu oztopo gaindiezin horrek itzuli handia egitera behartzen zaituela. Bada, hori da hainbatek egunero jasaten duen bizimodua. Orain modan dago irisgarritasunaz berba egitea. Planak egiten dira, legeak ere badagoz, eta teoriarik, administrazioak oztopoak kentzeko neurriak hartu ditu edo hartzen dabil. Egunero gurgildun aulkiagaz ibiltzera behartuta dagozan uribekostar batzuk egin dugu berba: euren ustez, irisgarritasunaz baina, irisezintasunaz berba egin beharko litzateke, azken urteotan zeozer aurreratu bada ere.

# Oztopoak nongura

## Irisgarritasuna Uribe Kostan

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

### Inersok eta ONCEk bizkarra eman Getxori

Getxoko Udala 1997an irisgarritasun plana garatzen hasi zenean, Madrilgo Gobernuaren erakunde autonomoa den Inersoren eta ONCEren laguntzagaz egin zuen. Azkenean, ordea, Inersok ezezkkoa eman zuen, "garai hartan PP zegoelako eta ez gintuztelako begi onez ikusten beharbada", dio Iñaki Zarrakoak, "eta ONCEk ere haren pausak jarraitu zituen ondoren". Azkenean, bakarka ekin behar izan zion Getxoko Udaletxeak lanari. Merezki izan du, nonbait, sari bi eta guzti jaso dituzte-eta elbarri elkarteetatik, EAEn zein estatuan.



**Iñaki Mentxaka** betidaniko erandioztarra da. Astrabuduakoa, zehatzagoak izateko. Gurgildun aulkian ibiltzera behartuta dago, eta hori berez galga handia izanik, kontuak askoz okerragoak dira kalera irten behar duen bakoitzean. Eta hori hala da gaur, EAEn arazook saihesteko helburua daukaten legeak aspaldi sortu ziren arren. 2000. urtean, hain zuzen, Eusko Jaurlaritzak kale eta eraikinetan irisgarritasuna segurtatzeko arauak eman zituen. Horren arabera, "lau urteko plan bat dago, udal bakoitzak garatzen ibili beharko lukeena, eta segurantzean udal bakar batek ere abiarazi ez duena".

UK-k eskualeko udal guztiei deitu die, Barrika eta Lemoizeri izan ezik, irisgarri-

### «Herri gehienetan, konponketek ez diote plan zehatz bateri jarraitzen»

tasun planez itaunka. Denetako erantzunak jaso ditugu, baina oro har egoera nahiko tamalgarrria dela esan daiteke. Gauzak egiten dira, baina gehienetan aurrer ezarritako plan bati jarraitu barik.

**Euskal Herriko lehen plana, Getxon** Oraingoan, Getxo da plan oso bat garatu eta ezarri duen udalerri bakarra. Iñaki Zarrakoak alkateak dioskunez, "Euskal Herrian iris-

garritasun plana daukan lehenengo udalerria gana. Kale eta espaloi guztiak aztertu genituen, banan-banan, 88 kilometro inguru guztira; garraiobideak eta udal eraikinak ere bai. Hortik aurrekontu bat atera eta konpondu beharrekoa konpontzen hasi ginen".

Getxoko plana iaz burutu zen, azkenik. Zarrakoaren berbetan, asko hobetu da, oraindik konponketarik eskertuko luketen guneak dagozan arren. "Espaloiak zabaldu dira gurgildun aulkia pasatzen izateko, eta zebra-bideak altxatu dira espaloien mailaraino. Bide batez, autoak motelago ibiltzea lortu da".

Alberto Solueta getxoztarraren ustez, ordea, hiriko egoera ez da alkateak aur-

kezten duen bezain ona. "Badagoz hobekuntzak, bai, baina espaloiak, oro har, txar-to daude. Buruz atzera jausi nintzen behin, eta minari bati esker ez nintzen hil. Udalak bihar amunean egin zituen konponketak. Ez beharra gertatu behar zeozer egiteko!".

Gainerako herrietatik, bi, Urduliz eta Berango, plana edukiteko bidean dira. Lehenengoak aurreko edukiko du amaituta segurantzean, eta bigarrenak datorren ur-



Elbarritu bat Gorlizten

tean. Orain arte, arazoak sortu ahala ahalegindu dira konponbidea ematen, ildo jakin bateri jarraitu barik. Antzeko egoera dago Sopelanan eta Plentzian, baina horietan ez dago momentuz planik garatzeko asmoa, bertako udal beharginek adierazi digutenez. Plentziako kasuan,

### «Legea dagoenetik egindako eraikin askok ez dituzte arauak betetzen»

gainera, Udalak badauka 1998an Bizkaiko Foru Aldundiak egindako txosten bat, herrian egin beharreko hobekuntzak modu zehatzean adierazten dituena. Baina orain arte ez zaio ekin, eta lan bakanak baino ez dira burutu.

Leioak, Gorlizek eta Erandiok, berriz,

ez digute erantzun. Hirugarrenaren berri Iñaki Mentxakaren bitartez lortu dugu, baina. "Nahiko txarto dago dena. Nik, askotan, errepidetik joan behar izaten dut, espaloi ezin igota. Eta irisgarritasun-legeak indarrean dagozanetik egindako eraikin askok ere ez dituzte arauak betetzen.

Erandioko elbarri batzuk alkate eta zinegotziak batu gara hainbatetan, eta konponbiderik topa ahal den, baina oso astiro doaz gauzak". Mentxakaren iritziz, konponketak egiten hastea ez litzateke garestiegia. "Hilean pare bat errebaje egin dezatela, ez dugu besterik eskatzen". m

### Eskaileraren kultura

Iñaki Mentxaka erandioztarraren ustez, eskaileraren kultura dago gurean. "Leku bateko sarreran ez badagoz zortzi edo hamar eskailera eta ate eder bat, ematen du zeozer daukala faltan". Horrek, jakina, derrigorrez aulkian ibili behar dutenei egiten die kalte batez ere, baina beste batzuei ere bai: ume txikiak aulkian daroezen gurasoak, erosketak egiteko gurgildun gurditxoak erabiltzen duen adineko jendea... Zer esanik ez, aspaldi eraikitakoetan aurkitzen dituzte elbarri eta abarrek arazo gehien. "Lehen ez ziren gauza hauek kontuan hartzen. Eraiki egiten zen eta kitto", adierazi digu Mentxakak.

### «Sarrera batek zortzi edo hamar eskailera ez badauzka, zeozer faltan daukala ematen du»

Gaur egun, legeak berak eskatzen du eraikin guztietan igogailua kalearen maila berean egotea. Dagoeneko oztopoz beteta dagozan eraikinetan, halere, hainbat irtenbide ezar daitezke: "Aldapatxoa ipin daiteke, baina horrek ere legeak adierazten duen malda eduki behar du, bestela ezin da hortik igo eta. Beste konponbide bat errebajeak dira, hau da, eskailera edo espaloi gurgildun aulkiek eroso gainditzeko moduko altueraraino jaistea". Orain modan dago, gainera, zebra-bideak espaloien mailara altxatzea, helburu bigaz: irisgarritasuna bermatu, batetik, eta autoei abiadura motelarazi, bestetik.





Algortako Burdinola gaztetxeak itxaropen handia piztu zuen bertako gazteen artean. Urtebete luze iraun zuen. Gaur egun orube hutsa da.



Goian, Erromoko gaztetxea okupatu zuten eguna. Alboko irudiak hustu zutenekoak dituzue.



Euren haserrea adierazteko Algortan Kultur Etxea zena okupatu zuten gazteek.



Gaztetxeak birrindu eta gero, agerraldiak eta protesta ekintzak etortzen dira. Argazkiotan, Itzubaltzeta gaztetxearen itxiera eta geroak. Eskuinean, kanpaldi bat San Nikolas plazan.



# Gaztetxeak

Burdinola, Kutxitril, Maidagan, Aixerrrotako txaleta, Itzubaltzeta...

Gazteek indarrak batuta, bizitzaz beteriko etxe hutsen izenak. Denak gaur egun errauts bihurtuak.

Hutsak. Gazte okupazioa. Bizitza. Eraispen lanak. Hori izan da orain arteko Getxoko gaztetxe denek izan duten bizitza zikloa. Gaztetxeen bizi-iraupena igartzea ezinezkoa dela jakin badakigu, baina getxoztar gazteek okupatuko duten hurrengo etxe hutsak zein heriotza modu izango duen asmatzen ez da hain gaitza. Hondeatzeko makinek botako dute seguruenik. Eta errautsen indarrak zutituko ei du hurrengo ametsa.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Getxoko Ibertxune baserria okupatu eta gutxira, egun batetik bestera eraitsi zuten jabeek. Ezkerrean, Ibertxune zena; azpian, baserria bota eta gero egin genuen irudia



## zineeskola

Oskar Fernández

## Artea eta ikuskizuna baino gehiago (II)

Aurreko artikulutxoan zinema terapia legez erabiltzen zela esaten genuen eta gaur egun terapia mota hau ezaguna dela, bere hedapena, profesionalen artean, poliki poliki zabaldu da eta. Zinema ere aspalditik oso ezaguna eta erabilia izan da baliabide didaktiko moduan. Orain arte zinemaz hitz egin dugu, zazpigarren arteaz, alegia. Zer esan nahi du honek? Batetik, film guztiak ez dira, inondik inora, zazpigarren artearen eremuan sartzen, kalitate gutxiko filmak dira-eta, garatzen dituzten istorioengatik eta itxura formalagatik. Bestetik, eta aurrekoaren ondorioa izanik, aipatu film txar horiek ez dute ez terapiatarako ezta irakaskutzarako ere balio. Beraz, gure inguruan dauden edo egin diren hainbat eta hainbat filmek arin ikusteko eta arinago ahazteko baino ez dute balio. Baina arte eremuan sartzen direnek euren ahalmena eta magia guztia zabaldu eta hainbat esparru asetzen dituzte: aisialdia, artistikoa, terapia, ezagupena, didaktikoa... Magia hitza atera da eta zinemak badu, hain zuzen ere, magia pizteko gaitasunik. Ondo baino hobeto ezagutzen ditugu filmak ondo ikusteko baldintzak: aretoak ilunpean egon behar du, jendea era erosoan jesarrita pantailan garatuko den istorioa ahalik eta hoberen ikusteko eta jarraitzeko, iluntasunean argitasun espazio zehatz bat baino ez dago. Filmaren ezaugarri teknikoak eta narratiboek egoera magiko hori borobilduko dute. Baldintza hauetan ikusleak filmaren istorioan murgilduko da eta bere barne barnean pertsonaiak eta ekintzak eragin handiz garatuko dira. Gauzak horrela, jendea prest eta motibaturik egongo da ekintza desberdinetan parte hartzeko. 4

## Eskaintza guztia martxan

### Cinema Paradiso eta Haur Zinema

urriko azken asteburuan hasiko dira

**Batak barikuetan** dihardu, besteak domeketan. Biek Getxo Antzokia daukate erakustoki. Lehenengoak gauean jartzen du zita, bigarrenak domekero hiru saio eskaintzen ditu. Adin nagusikoak ditu ikusle Cinema Paradisok, umeak ditu maite Haur Zinemak, eta biek ala biek aretoak 7. arteagaz betetzen dituzte.

Getxoko Kultur Etxeak sustatzen dituen hiru zinema eskaintzetatik bat Zine-Klubarena da, eta aurreko UK-n eman genuen jakitera denboraldi berriari ekin diola. Bada, Kultur Etxearen beste

#### «Haur Zinemaren euskarazko eskaintza, hileko lehenengo domeketan»

zinema eskaintza biak ere, Cinema Paradiso eta Haur Zinemarena hile amaieran abiatuko dira. Cinema Paradisok barikuetan pantailaritzen ditu filmak, azpitoludun jatorrizko bertsioan. Denboraldi berriari A. Gonzalez Inárrituaren *21 gramos* filmagaz emango dio ongietorria, hilaren 29an, 22:00etan. Horren albotik, *Las Super amigas contra el profesor Vinilo* film laburra ere eskainiko dute. Bestalde, domekako Haur Zinemak ere izenburu indartsu batez ekingo dio



Shrek II urriaren 31n ikusi ahal izango da


denboraldiari: *Shrek II* eskainiko du urriaren 31n. Azkenik, gogoratu, Haur Zinemaren euskarazko eskaintza hileko lehenengo domekan izaten dela, eta azaroaren 7an emango den filma *Euriaren Seme-alabak* izango da. m

### Jakingarri

- **Non:** Getxo Antzokia.
- **Noiz:** Cinema Paradiso, barikuetan, Haur Zinea, domeketan.
- **Ordua:** Haur zinema, 12:00, 17:00 eta 19:00etan. Cinema Paradiso, 22:30ean.
- **Sarrerak:** Cinema Paradiso: 2,60 euro. Haur zinema: 1,90 euro.

## Ez galdu > “El gran dictador”


• **Non:** Getxo Antzokian eta Areetako Gran Cineman • **Noiz:** urriak 20 eta 21 • **Ordua:** 19:30 • **Zinekluba**



Lan interesgarri honen atzean Denys Arcand film zuzendaria dugu. Bere lehenengo lana 1960an zuzendu zuen eta geroztik hamaika film luze eta dokumental bi pantailaratu ditu. Istorio hau *El declive del imperio americano* (1986) filmaren bigarren parte da; istorio sakona, hunkigarria eta erakargarria kontatzen digu. Filmaren protagonista Montrealeko hospital batean hilzorian dago, garai oso bortitzean bizi garelako guztiz konbentziturik dago eta bere liburutegia aitxor moduan gordetzen du, eskuz idatzitako liburua izango balira legez. Film honek nazioarteko sari desberdinak irabazi ditu: Canneseko Nazioarteko Zinemaldian, (2003) gidoirik onenaren eta aktorea onenaren sariak; eta Torontoko Nazioarteko Zinemaldian, (2003) filmik onena.

## Udagoieneko fruituak

Musikari euskaldunek udazken honetan plazaratuko duten **uzta entzuteko prest?**



Benito Lertxundi

**Udagoienean** musika arbola askok eta askok ematen dituzte euren fruituak. Hartara, euskal diskoetxeek urtaro honetarako aurkezten dituzten musikari euskaldunen uzta ezagutu berri dugu. Fruituetako batzuk heldu dira dagoeneko, eta plazetan daude salgai, beste batzuk, ostera, azaroan helduko direla iragarri dute. Elkarrek dakar uztarik ugarienetakoa, besteak beste, aipatzekoak dira: Benito Lertxundiren hastapenetako 9 disken bilduma (1971-1996), Oskarbi taldearen abestirik esanguratsuenak biltzen dituen CD bikoitza, Gariren lan berria, Imanol zenari eskainitako omenaldi-diskoak, edota Txirri, Mirri eta Txirribiton pailazo ospetsuen *Aliza Pelipe* disko berria. Gor diskoetxeak, ostera, Tocamas 70. hamarkadako talde iruñearraren

kantak berreskuratuko ditu, eta Kerobia taldearen lehen diskoa aurkeztuko du. Bat Gehio eta Kokein taldeen lehenengo lanak eta Bide Ertzearen bosgarren diskoa plazaratuko ditu, besteren artean, Gaztelupeko Hotsak-ek.

#### «Fruitu batzuk heldu dira dagoeneko, besteak heltzear daude»

Metak diskoetxeak ere badauka zer esanik, Zein? taldearen bigarrena, Sagarroi-ren hirugarrena, Pi-L.T-en bosgarrena eta Betagarriren zuzeneko diskoak plazaratuko ditu-eta, batzuk aipatzearren. Oihuka-ren eskutik, berriz, La lengua de trapo, Keike eta Txapel-punk-en lan berriak ezagutuko ditugu. m

### Batzuk

- **Nire anaiaren kotzeko argiak...**, Txuma Murugarren, Gaztelupeko Hotsak
- **Gorkhiru**, Gorkhiru, Gaztelupeko Hotsak
- **Nafarroako kantu zaharrak**, Hiru Truku, Metak
- **Korrontearen kontra, urpekari bat**, Captain Nemo, Metak
- **Edan hemendik**, Urgabe, Oihuka
- **Kerobia**, Kerobia, Gor
- **O-tik**, Gari, Elkar
- **Benito Lertxundi**, hasierako lanen bilduma, Elkar

### diskoak

**Genius loves company**  
Ray Charles  
EMI




Ekainaren 10ean, 73 urte zituela, gaur egungo musikaren zati bat hil zen: Ray Charles aitzindaria eta soul-aren zein rhythm & blues-aren talentua. Azken hatsa bota aurretik, Georgia-ko itsuak 12 laguni deitu zien disko bat bikoteka grabatzeko; lagun horiek James Taylor, Elton John, B.B. King, Gladys Knight eta Van Morrison dira, besteak beste. Emaizta hementxe daukagu: hilondoko disko hau.

**Everyone is here**  
The Finn Brothers  
EMI



Bagenekien Tim eta Neil Finn anaiek (Split Enz eta Crowded House taldekoak, hurrenez hurren) kalitate handiko melodiak sortzeko trebezia zeukate. Disko honetako 12 abestietan zehar, Zelanda Berriko musikari hauek harmonia ezin hobekak, taxuzko testuak, moldaketa finak eta, batez ere, ahotsen konbinazio ederra eskaini dizkigute gure belarrien pozerako. Gustu oneko pop musika.

**Diaspor han**  
Bat Gehio  
Gaztelupeko Hotsak



Talde hau Bartzelonan topo egin zuten Euskal Herriko eta Kataluniako zenbait musikariz osatuta dago, Julen Cobos aretxabaletarrak egindako kantuak jotzeko. Baionako Gazte Leiho lehiaketa irabazi ostean, Ojos de Brujo taldeko kolaboratzaile Paco Román teknikariaren estudioan grabatu dute pop, jazz eta flamenko doinuak nahasten dituen lehenengo disko hau, musikari askoren laguntzagaz.

## Agurra > Erramun Martikorena



Badoala erran du, kantaldiak ematek geldituko dela. Azaroaren 11n eskainiko du azken kontzertua Bartzelonan. 61 urte ditu Erramun Martikorenak eta oholtzak uzteko ordua heldu zaiola erabaki du. Askorentzako Urepeleko artzaina abestiaren irudia da, eta 61 urteagaz agur esan die agertokiei. Laborari, artzain, gasna ekoizle eta saltzaile lanetan aterperatuko da hemendik aurrera. 1978an kaleratu zuen lehenengo diskoa, eta 2001an azkenengo lana plazaratu bitartean, beste sei argitaratu zituen, 8 guztira. Entzuleen penaz, baina barrenak goxoki ase dauzkala agur diosku Baigorriko artzainak.

## Sarean > Negu Goriak-en liburua

*Negu Goriak-Idea Zabaldu Tour 95* liburua oso osorik irakur daiteke Susa argitatzeko webgunean. Garbiñe Ubedak taldeak Europa osoan egindako biraren lekukotasuna batu zuen 1995ean. Liburu hura osorik sarean zintzilikatu du orangoan Susa argitaleteak. 1990 amaieran eskaini zuen Negu lehengo kontzertua, 1996. urte aldera banandu ziren eta azken emandik eta ospakizun baterako berriro batu ziren gero (orain dela pare bat urte Anoetako Belodromoan). Alabaina, oraindik ere, Euskal Herriko edozein txokotan entzuten dira euren kantak.

[www.susa-literatura.com](http://www.susa-literatura.com)

## esaterikbadut

Esti Ezkerra

## Egunerokoa (xxv)

## Zortzi urte eta gero

Emakume bati eman diote aurtengo Literatur Nobel saria. Ez diot sinadurari erreparatu izan beharrik albistea gizon batek idatzi duela jakiteko. Saria eman diote-eta, ez du, ez, berak irabazi. Suedian elkartu da akademia, eta, eztabaida luze baten ostean, Elfriede Jelinek saritzea erabaki du. Nor eta emakume bat. Austriakoa, jaiotzez, judutar baten alaba. Bakezalea eta emakumeen sexualitatean interesatua. "The piano teacher" nobela ezagunaren egilea -gogoratzen duzue duela bi urte, Donostiako Zinemaldian, zer nolako zalaparta piztu zuen Jelineken obratik abiaturik Michael Hanekek osatu filmak?-

Gainera, ez pentsa albisteak poz handirik eragin dionik. Ezustean harrapatu duela aitortu du, baina horixe besterik ez. Halako sari bat jasotzeko psikologikoki behar bezala prestatuak ez dagoela dio. Fobia ikaragarria dio ospeari; itogarria iruditzen zaio jendez inguraturik egotea. "Inoiz nahiko ez zenukeena dakar Nobel sariak: iritzi publikoaren jomugan dagoen pertsona bihurtzen zara". Hala ere, zin egin du Estoklomon antolatuko duten zeremoniarako hitzaldia prestatuko duela. Zeren bizitza honetan, oren gainetik, esker onekoa izan behar du batek. 11 urte igaro dira azkeneko emakume bat Nobel saridun suertatu zenetik. Orduko hartan, Toni Morrisoni "eman" zioten sari preziatua. Jelinekekin 11 dira nobeldun emakume idazleak. Badirudi nahita aukeratu dutela kopurua. 11 urte, 11 saridun. Sexuaren arabera sariaren prozedura aldatu egiten dela uste duten horiek -irabazi ala jaso- aise aurkituko dute aurtengo hautuaren arrazoia. Edo topikoak esan beharko genuke? 4

## Bizipenak destilatzen

'Fitola balba karpuki tui' poemategia argitaratu du **Jon Gerediaga** bilbotarrak

**Antropologia** ikasi zuen, baina ez da antropologo sentitzen. Irakaskuntzan egiten du behar, baina ez du bere burua irakasle ikusten. Idatzi, dezente idazten du, poesia zein antzerkia - Antzerkiola Imaginarioko gidolarietako bat da Jon Gerediaga-, baina idazle etiketak gutxi adierazten duela dio. Orain dela hilabete batzuk, Pamiela argitaletxearen bitartez, estreinako poemategia kaleratu zuen Bilbon jaio eta Algortan bizi den Gerediagak. *Fitola balba karpuki tui* dauka izenburua, eta ziur gaude lanak zer esanaik emango duela.

"Lehen nire buruarentzat idazten nuen gehienbat, nahiz eta laguneri idatzitakoa era-

## «2000. urtean bizitakoaren gogoeten emaitza dugu Gerediagaren poemategia»

kusten nien. Txilen egon nintzenez hasi nintzen liburu bat osatzearen kontua aztertzen, 2000. urtean izandako esperientzien ostean zer kontatua bainean. 2000. urtea heriotza sinbolikoa izan zen Gerediagarentzat. "Urte horretan ez nuen ezer egin, ez neukan sentimendurik -Ander Lipusek *Teologia del infierno-n* idatzi zuen bezala, sentimendu zero zen nirea-. Egoera



Argazkian, Jon Gerediaga

haren ondorioz liburu bat idazten amaitu dudanez, une produktiboa izan ote zen galdetu zidaten behin. Bada, ez zen batere produktiboa izan. Urte hartan, zehazki, ez nuen ezer idatzi. Ikasketak zirela-eta Txilera abiatu nintzen, eta han nengoela zera pentsatu nuen: urte bete oharkabea pasa zait, beraz, orain dudan ikuspegiarekin saiatuko naiz orduko gogoetak berreskuratzen, eta iraganeko bizitza zati horren destilazioa egiten". Destilazio prozesu horren emaitza da *Fitola balba karpuki tui*, poema bortitzez osaturiko lana. m

## liburuak



**Konpainia noblean**  
Anjel Lertxundi  
Erein

Geriatriko batean bizi den protagonistak (narratzailea ere bada) oroitzapen deserosoak baztertu ditu, eta errealitatearen eta ametsaren artean ibiliko da. Liburuaren 93 narrazioak modu independentez irakur daitezke; izan ere, Orioko idazleak berak mosaiko batez parekatu du liburuaren egitura.



**Mendekua graziaz**  
Karlos Linazasoro  
Erein

Mendekua hartzen dutenek horretarako arrazoi indartsuak ei daukate. Mendekua ardatz daukaten zazpi ipuin bildu ditu, batzuk lehendik argitaratuta zituen, baina orain gazteentzat moldatuta plazaratu ditu. Kontakizunek genero beltzaren ezaugarriak daukate, eta amaierak irekiak.

## Irratia &gt;

## Bilbo Hiria 96.00 FM

Bilboko Zenbat Gara elkarteak bultzatzen duen **euskara hutsezko irratia** programazio berri eta erakargarria aurkeztu du

**1997ko udaberrian** ezagutu zuen Bilbo Hiria irratia lehenengo aldiz uhinen kulunka. Zazpi urteren ostean, uhinak menderatu ditu apurka-apurka, eta zuzeneko saioen eskaintza zabalagoa aireeratzeko erronka hartu du aurtengo Zenbat Gara kultur elkarte-ari lotutako irratia. Egindako bidearen eta aurtengoaren bidearen berri irratia koordinatzaile Mieltxo Monfortek eman digu: "Zenbat Gara-ren alaba da irratia, beste asko bezala, esaterako *Kafe Antzokia, Algara kon-*

## «Txuma Murugarren edota Anje Duhaldek gidatutako saioak entzungai»

partsa, Gabriel Aresti euskaltegia... Zenbat Gara-ren helburu nagusia Bilbo Handiko euskaldungoa biltzea, konpaktatzea da eta aukerara ematea euskaraz bizitzeko. Eta mementu batean jabetu ginen komunikabide bat behar genuela; euskara hutsez, euskaldunen zerbitzura eta euskaldunen bilgune izateko".

Eta asmo horregaz 7 urte daramatza Bilbo Hiria irratia. Programazioari begira, ohiko zuzeneko *Ibaizabal* magazine informatiboak hartzen du 09:00-12:00 bitarteko



Jabi Lauzurika eta Joxemi Larrabeiti saio egiten

tartea. Baina aurtengo berrikuntza nabarmena arratsalde partean eskainiko du irratia. Astegun bakoitzeko bina saio eskainiko dituzte arratsaldero. Denetan goraitzekoak dira izen ezagunek zuzenduko dituzten saioak: Txuma Murugarrenen *Musibla* saioa, Anje Duhalderen *Soinu eta Solas*, Mikel Urbeltzen *Baskistan* edota Pedro Elias Igartuaren *Soinugela*. Laurak euskal musika edota munduko musikan oinarritzen diren saioak dira. Bestalde, bertsolaritzari (*Potto*), literaturari, arteari, rockari (*Gaubasa*), heavy-ari (*33kana*) eta gurasoi zuzendutako saioak ere uhineratuko dira. m

## Saio batzuk

- **Baskistan.** Astelehena. 17:00-19:00.
- **33kana.** Martitena. 19:00-20:00.
- **Musibla.** Hileko bi eguaztenetan. 17:00-19:00.
- **Soinu eta solas.** Hileko beste bi eguaztenetan. 17:00-19:00.
- **Gaubasa.** Eguaztena. 19:00-20:00.
- **Soinugela.** Eguena. 17:00-19:00.
- **Berbaz.** Elkarriketa saioa. Eguena. 19:00-20:00.
- **Potto.** Barikua. 17:00-18:00.
- **Zutargi artean.** Musika klasikoa. Barikua. 18:00-19:00.
- **Kingstone hiria.** Reggae saioa. Barikua. 19:00-20:00.

**UK** etxean  
jaso nahi baduzu  
**94 491 13 37**

UK Urbe Kostako Aldizkaria 171 posta kuba  
Ametzi 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48900 Getxo  
uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37 / fax: 94 491 58 31

## uhinakFM

Getxo Irratia	87.6
Radio Euskadi	92.4
Euskadi Gaztea	94.7
Bilbo Hiria Irratia	96.0
Tas-Tas Irratia	97.0
eitb irratia	100.1
Bizkaia Irratia	102.6
Euskadi Irratia	104.4
Pititako Irratia	107.0
Gorliz Irratia	107.8
Koska Irratia	108.0

Egunkariak  
prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,  
etxera eramaten dizugu  
egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78  
T: 94 491 27 34



**GALEA  
ASESORES, S.L.**

**AHOLKULARITZA  
JURIDIKOA, FISKALA  
LABORALA ETA KONTABLEA**

Telletxe, 3 - 1. A • ALGORTA  
% 94 460 95 12  
Fax: 94 491 11 31

**irabazi UKrekin**

**MUGI**  
FISIOTERAPIA ZENTRUA  
x Tendinitis Esgintzeak  
x Erreuma x Kiroleko

deitzen duenak  
**masaje bat debalde**  
irabaziko du!!

94 491 13 37  
uk@aldizkaria.biz

Mendieta 2, SOPELEA 17 67

**Kafe Antzokia**  
**Sarrerak debalde!**

**urriak 21 osteguna**

**KID + KHAN  
AKAUZAZT  
2 sarrera**

**deitu!  
94 49113 37**

Kafe Antzokiak  
antolatutuen ekitaldietarako sarrerak lortu.  
UK-ra deitu eta kitto.

[sarean]

## CDak kalean kopiatu

CDak **kopiatzeko makina** ipini du Bilboko Ercilla kalean Valentziako enpresa batek

**Kalean** tramankulu bitxiak ikustera ohituta gaude. Gure herrietan *photomatoiak* izan ziren agertzen lehenak: zenbait txanpon sartu, gezurrezko irribarra ipini, eta laster batean gure aurpegi ederraren lau argazki botatzen zituen makinak. Gero, hainbat tramankulu agertzen hasi ziren: bisita txartelak egi-

**«CD garbia makina berak eskaintzen du, originala baino ez da eraman behar»**

tekoak, sandwich beroak eskaintzen zituztenak, baita eskua sartu eta etorkizuna irakurtzen zutenak ere!

Oraingoan Copyplay Valentziako enpresak Bilbora ekarri diguna zur eta lur utzi gaitu: fotomatoi itxurako tramankulu batera gerturatu, edozein CD sartu eta makinak kopia emango digu

minutu gutxitan. Non? Ercilla kalean, hotelaren parean.

Sistema honen legaltasuna zalantzan dago. Berez, sistema honekin kopiak egiteak ez luke legala izan behar (ez dute inolako zerga berezirik ordaintzen, eta Copyplayk ez du SGAE-gaz inolako akordiorik). Guk ekoiztutako musika edo irudiak arazo barik kopia genitzake, baina ez copyright-dun artisten lanik. Hori bai, makinak ez du sartutako CDaren edukia ezagutzerik, beraz, edozer graba dezakegu (erne ibili, Ramoncín inguruan agertzen bada...).

Lehen CD baten kopia egiteko ordenadorea behar bazen ere, orain txanpon gutxi batzuk lor daiteke hori. CD garbia makinak berak eskaintzen digu, guk originala baino ez dugu eraman behar.

Errazagoa egin daiteke? m

## webgida

**EUSKALTEL**  
>www.euskaltel.es

Euskaltelek atzera egin du hasierako bere asmoagaz, eta konekzio motelak dutenei ere abiadura handituko die aurrerantzean: 128k-tik 300k-ra eta prezioa aldatu barik. Hasieran aldaketa hau abiadura handia zutenentzat baino ez zela izango aditzera eman bazuten ere, jasotako kritikek eta ADSL guztiek izango duten abiadura bikoizketa ikusirik, Zamudioko konpainiaren jarrera aldaketa ekarri dute.

**GAZTEENTZAKO KANALA**  
>www.hator.com

Aurten Bai Fundazioaren ekimenez eta El Correo eta Diario Vascoren laguntzaz gaztetxoentzako euskara hutsezko kanal berria abian ipini da. Egunero erabiltzeko da orri hau eta bertan apunteak aldatu, ligatu... daiteke.

## Sarean aurkitu ditugu >



**Paul Bilbao > Hizkuntz Eskubideen Behatokiko zuzendaria**

“Administrazioari dagokio hizkuntz eskubideak ez urratzeko bitartekoak ipintzea”



Algortan egon ginen Paul Bilbaogaz

**Paul Bilbao algortarrak urte asko egin ditu euskaragaz zerikusia daukaten eginkizunetan. AEKn egon zen, euskal filologia ikasi zuen eta umeentzako liburuak idatzi zituen. 2001etik, Kontseiluak sortutako Hizkuntz Eskubideen Behatokian dihardu. Hasieran kudeatzaile ibili zen, baina aurtengo irailaz geroztik Behatokiko zuzendari berria da. Berbaldi honetan euren egitekoaren berri eman digu, besteak beste.**

—Zein da Behatokiaren lana?

—Izenak esaten duen moduan, hizkuntza eskubideak behatzea. Ez hori bakarrik, baita euskal hiztunon hizkuntz eskubideak bermatzeko ekimenak garatzea ere. Hizkuntz eskubideak giza eskubideak dira, eta hala hartzen ditugu. Euskaldunok hizkuntz komunitate bat osatzen dugu eta beraz, eskubide batzuk dauzkagu. Denok dauzkagu eskubide berak, gainera, sei estatus juridikoren mende egon arren. Gure lanik garantzitsuena, azken batean, urtero txosten

bat egitea da hizkuntz eskubideen inguruan. Kontseilua ohartu zen, intuizioz-edo, hizkuntz eskubideak urratu egiten direla, eta hori objetibatu beharra zegoela uste zuten. —Salaketa egiten duzuela esan daiteke? —Ez. Guk ez dugu hitz hori erabiltzen. Deitzen diguten herritarren kasuan ere, kekak helarazten digutela esaten dugu, ez salaketak. Guk behatu eta jaso egiten dugu, eta gero egoeraren argazkia ematen diogu administrazioari. Beraiei dagokie hori ez gertatzeko bitartekoak ipintzea.

—Orduan, salaketa berba ez duzue erabili gura, baina gauzak hobetu behar direla argi daukazue...

—Hala da. Guk ez dugu esango zer egin behar den, baina argi dago hau ez gertatzeko zerbaitekin behar dela. Eta ez da egiten ari. Hor daukagu Osakidetza, esaterako: orain dela bi urte 1.800 lanposturako deialdia ateratu zen, eta batean ere ez zen derrigorrezkoa euskara ezagutzea. Argi dago hori ez dela bitarteko egokia izan hizkuntz eskubideak bermatzeko.

**“Euskaldun guztiok dauzkagu hizkuntz eskubide berak, sei estatusen mende egon arren”**

—Zein eremutan urratzen dira eskubideak gehien?

—Guk hiru beltzune hauteman ditugu: osasun arloa, justizia arloa eta herrizaingoa.

—Zer neurri har daiteke?

—Finlandiako uharte batzutan, etxea erosi nahi duenak suediera dakiela frogatu behar du, eta inor ez da aztoratzen. Jakina, suediera hizkuntz nagusia da beste herrialde batean, eta alde horretatik egoera desberdina da gurearekiko. Hemen orain lege bat aterako balitz, demagun, merkataritza zentro guztietan errotulu guztiak elebidun egoteko, bazterrak nahastuko lirakeke. Hori eremu pribatua dela, eta abar. Baina ez gaitu ikaratu behar administrazio publikoak eremu pribatua hizkuntza erabiltzeko neurriak hartzea. Oso normala izango litzateke, eta hainbat herritan egin da. Administrazio publikoak beste hainbat gauza ere arautu egiten ditu eremu pribatuan, berdin dit tabernetan bi komun egon behar izatea edo... Hizkuntz eskubideak bermatzeko neurri batzuk hartu beharko dira. Nik, zoritxarrez, Euskal Herrian oso urrun ikusten dut hori. m

# Bertoko euskera jakingo baneuke!

Oraingoan gramatikaren ganeko gaia baldintzei jagokona izango da, eta artezago esatearren, NOR eta NORK kasuak baino ez dira landuko momentuz. Esan behar da (grabazinoak hala adierazten deure argi eta garbi) Getxon ez dala aldaera edo eredu bakar bat egiten, eze Leioa aldean (Larrañazubi...) dagozan auzo edo etxeetan Leioako aldaera erabilten da eta Azkorri, Tosu zein Martituri ingeruetan (esate baterako) ordea Sopelako aldaera usetan da. Hortan, hiztunaren jatorriak eta bizilekuak zeresan handia deko bata edo bestea egiteko orduan, eta hau halan izanda, geuk modu biak ikusiko doguz, sieran bata zein bestea ezagutu dagizuen. Hori bai, kontuan hartu bertoko euskera duztiz orala izan dala eta izakera horrek sarritan aldaketak ekar daitez, auzorik auzo zein hiztunik hiztun bere. Halan eta duztiz bere, honek formak dira gehien usetan direnak.

Testua: **Andoni Llosa**

## NOR Leioako moduan

Ni	banentike	nentike
Ha	baletike	letike
Gu	bagintikes	gintikes / geintikes
Zu	basintikes	sintikes / seintikes
Zuek	basintikese	sintikese / seintikese
Haik	baletikes	letikes / litikes

### Adibidek

“Ni bason galduko banentike, ama sano larrituko letike”  
“Zu etzera belu etorko basintikes, gu joango gintikes”

## NOR Sopelako moduan

Ni	banitxike	nitxike / neintxe
Ha	balitxike	litxike
Gu	bagintxikes	gintxikes
Zu	basintxikes	sintxikes
Zuek	basintxikese	sintxikese
Haik	balitxikes	litxikes

### Adibidea

“Fabrikeko beharra ona ixengo balitxike, joango nitxike ni edozein lekure beharren”

## NORK Leioako moduan (sin. eta plur.)

Nik	baneko / banekos	neko / nekos
Hak	baleko / balekos	leko / lekos
Guk	bagenko / bagenkos	genko / genkos
Zuk	basenko / basenkos	seno / senkos
Zuek	baseunke / baseunkes	seunke/seunkes
Haik	baleuke / baleukes	leuke / leukes

### Adibidek

“Hak txakurre ekarko baleko (balu), nik ez neko erosiko”  
“Guk etzeko beharrak arin egingo bagenkos, zuk bardin antzen egingo senkos”

## NORK Sopelako moduan

Nik	baneuke / baneukes	neuke / neukes
Hak	baleuke / baleukes	leuke / leukes
Guk	bageunke / bageunkes	geunke / geunkes
Zuk	baseunke / baseunkes	seunke / seunkes
Zuek	baseunke / baseunkes	seunke / seunkes
Haik	baleuke / baleukes	baleuke / baleukes

### Adibidea

“Nik hori karamelu erosiko baneuke, garbiñek karamelu duztik erosiko leukez”



gure posta elektronikoa

**uk@aldizkaria.biz**

UK Uribe Kostako Aldizkaria

## Gurberbake 47

### ZELAN ESAN

#### Txarto esan / ulertu dana arteztuteko

Beste Berbakere batzuten ikusi dogu zelan eskatu eta emon informaziño (33) eta komunikaziñoaz zerikusi dauken beste hainbet kontu: aldi honetan, komunikaziño barik, inkomunikaziño pasaten danen, hau da, zeozer txarto esan edo txarto entzun danen zer esan ikusiko dogu.

Testua: **Xabi Bilbao**

#### Uleru ez daunek zer esan

Zer? Zelan? Zer diñozu?  
Zer esan gúre dozu?  
Parkatu, baia ez dotsut ulertu.  
Ez dotsut ulertu ondo.  
Ez dot entzun ondo.  
Esáizu óstabere, mesedez.  
Esangozu apur bet áltuau (altuago)?  
Esáizu apur bet astiróau (astiroago).

#### Argi berba egin ez daunek zer esan

Bai, txarto esan dot...  
Bai, argíau (argiago) ésango dotsut  
Bai, átzera esango dot/ésango dotsut.  
Béste modu batera ésango dot/ésangotsut.  
Ez dot esan gúre ixen hau...  
Esan gúre ixen dótena da... beste hau.

#### Adibidek

—Parkatu, baia saldu dostézun arrañek ezteko itxúre onik.  
—Zer? Parkatu, baia ez dotsut ulertu...!  
—Bai, **argíau ésangotsut**: hau arrañe ez dau atzo atrápata, hori seguru da!  
—Zelan? Hemen zarata handi dau! Esangozu **apur bet áltuau**?  
—Bai, áltuau eta **béste modu batera ésangotsut**: ¡hau arrañe, kasik anfibio dau bihortute!  
—Anfibio? Zer anfibio? **Zer esan gúre dozu**?  
—Bai, anfibio! Hainbeste dénpora lurren pasata!

—Kontuz, nire basun lar dau!  
—Ardau? Ondiño gehiau gúre dozu? Autsi ba!  
—Ez, ez, **esan dótena da, lar!** Lar daule! Ez géhiau bótateko?  
—Zelan? **Zer diñozu?** Ondiño bótateko?  
—Ai ene! Ez dau **béste kamarerurik?**

# I

## I aki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER  
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 4302345

Algorta

## BEHIN BATEAN

### LIBURUDENDA

Kasune, 24 ALGORTA  
Tf. eta Faxe: 94 430 74 03


## Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

## GARBIKO



GIZONENTZA -  
KO MODA

Telletxe 5  
ALGORTA  
T:

## Mar a Jes s

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10  
T: 4910821  
ALGORTA

HARTU TXANDA




gaizka escudero / villabotas-ekoa

## Perretxikoak

arroza eta barazkiakaz

**Urte osoan zehar** hartu badaitezke ere, udagoiena izaten da berez perretxikoen urrezko garaia. Jeneralean arrautzekin edota plantxan baino ez ditugu jaten. Zergatik ez lagundu, esaterako, arrozarekin jaki gozo hau? Nire sukaldera *sende-ruela* (marasmus oreades) eta saltsaperritxoko (*cantarelus* izenez ere ezagutzen dira) ale batzuk ailagatu dira eta horietan erabili ditut, baina beste edozein perretxikorekin ere presta daiteke proposatzen dizuedan plater hau. Has gaitezen. Ipini sutan oliba oliotan berakatzatza, piper berdea eta azenaoria, guztia ondo txikitua. Hau guztia apur egiten denean perretxikoak gehitu eta gero arroza. Sutan eduki dena eta eragin bospasei minutuz. Gero ura eta gatza gehitu. Arroza puntuan egon arte itxaron. On egin! <sup>m</sup>

osagaiak  
perretxikoak • berakatzatza • piper berdea  
azenaoria • oliba olio • arroza • gatza



itsaso arana / jolastoki-koa

## XXI. mendeko

uztak

**Hasi berri dugun mendeak** gogoangarria izango den uzta bat oparitu digu dagoeneko. Zalantza barik eta aditu guztiak bat datoz honetan, 2001eko uzta gogoratzekoa izango da, bai Euskal Herrian eta bai Espainian ere. Gainera jatorrizko izendapen guztiek jaso dute mirarizko uzta hau. Hala ere, horrek ez du esan nahi 2000ko eta 2002ko uzta txarrak izan zirenik, urte biek ardo apartak eman dituzte eta. Baina ardo kontu huetan *añadetan* erreparatzen duten zaleentzako argi dago: 2001 da euren urtea.

Hemen azpian daukazue, batzuk aipatzearen, mende honek eman dituen harribitxi bat edo bi:

- Contador, 2001 (Errioxa)
- Trasnoko, 2001 (Errioxa)
- Cirsion, 2001 (Errioxa)
- Artadi, 2001 (Errioxa)
- Chivite Colección 125, 2001 (Nafarroa)
- Torcos, 2001 (Nafarroa)
- Clos de Figuers, 2001 (Priorato)
- Aretxondo Luberrin mahastia, 2002 (Bizkaiko Txakolina)
- Itsasmendi berezia, 2000 (Getariako Txakolina)

## Alvarito's

kalitate handiko hanburgesak Algortan



Argazkian, Alvaro Bohorquez. Arreta ipini atzeko koadroari

**Fast food** horren multinazionalak, betiko hanburgeserian kalterako, nagusitzen dabilzala emoten du. Baina, oraindik bada go ogitarteko gozoak non dastatu; Algortako Basagoiti etorbideko 50ean dagoen Alvarito's-en, kasu baterako. Alemaniako itxura duen taberna txikia eta txukuna da. Hanburgesa ugari eskaintzen dituzte, baina guztietan bereziena "Americana" izena duena da; uraza, tomate, kipula, arrautz frijitu, pernila, mahonesa eta pepiniloa daramana, hain zuzen ere. Horrez gain, ogitartekoak (txekor haragia, pernila eta gaztagaz; esate baterako), mota ugariak entsaladak, sandwich begetalak eta zapo handiko saltxitxa alemaniarrek ere (hauek, bokatan zein plateran har dai-

tezke). Azkenik, hauek guztiak laguntzeko, errazioetan aukera zabala ere eskaintzen dute: kipula eraztunak, patata frijituak, oilasko nuggetsak eta iztertxoak, piperrak...

Esan legez, taberna txikia da eta barran afaltzeko aukera baino ez dago. Hala ere, etxetik bertatik eskaera egin eta janaria bertara eroateko aukera ere badago (94 430 18 23).

Alvaro Bohorquez da tabernaren jabea eta burua. 15 urte daramatza jada bertan. Sukaldari beharretan, bestalde, Sara dabil. <sup>m</sup>

**ALVARITO'S**  
Basagoiti, Sopela  
Telefonoa: 94 460 03 65

## JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA

## Asado



¥ Zabalik egunero

¥ Eguneroko menuak

¥ Enpresa menuak

¥ Menuak norberaren gustura

¥ Egunero karta berezia

¥ Gazez dastatzeko menua astelehenetik-ostegunera

¥ Jaun hartze bazkariak


Aretxondo 14

Algortako Portu Zaharra / Getxo  
Erreserbak: 94 491 25 93

**TXIKI-AUNDI KAFETEGIA**  
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA



jateko

- urdaitegia
- frutadenda
- elikagaiak

Amezti 4 - Tlf.: 94 491 06 54  
ALGORTA

**Zurikaldai**

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI  
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO

**KONTXI**  
ZUZUBISKAR  
URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA  
T: 94 491 02 93

**Taberna Bern**  
Sarrikobaso 4 - ALGORTA  
Tf.: 944 306 493



**ITXASGANE**  
prentsa ¥ aldizkariak  
GETXOKO KIROL PORTUA  
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

**BATIZ KRISTALDEGIA**

- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)  
T:94 430 69 42 /ALGORTA

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

**OLATXO**  
altzariak  
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11 AREEA T.: 94 464 89 94  
Juan Bautista Zabala, 5 ALGORTA T.: 94 491 13 94

**VILLABOTAS JATETXEA**



Menu merke eta askotarikoak  
Especialitateen karta  
Giro atsegina

T: 430 43 33  
Villaondoeta 2, ALGORTA

[horoskopoa]

**URA**

t



(Abenduak 21 urtarrilak 19)  
Udako ajea kendu ezinik zabilza, eta orain daukazu gorputza garbitzeko ordua: saunan 20 minutu, barazkiak eta frutak ia egunero, eta asteburuetakoa parranda, azarora arte ezer ez!

**AITZURRA**

t



(Martxoak 21 apirilak 19)  
Udako jaietako parrandek neurona barik utzi dizute burmuina. Non zauden ere ez dakizu, eta txoriz beteta daukazu burua. Jaitsi zaitzez lurrera, uda amaitu da, eta lanean hasteko garaia duzu!

**GARIA**

t



(Ekainak 19 uztailak 18)  
Osasuna eta amodioa. Horiek dira estreinatu berri dugun sasoiak ekarriko dizkizun oparirik garrantzitsuenak. Zintzoa izan zara, eta orain jasoko duzu fruitua.

**META**

t



(Irailak 17 urriak 16)  
Zer diozu? Zaharra zarela? Sasoi honetan urtero berdin zabilza. Urteak betetzea gauza ona dela zenbat bider esan behar dizut? Ligatzeko beste tekniken bat aurkitu ezazu, faborez.

**OTSOA**

t



(Urtarrilak 20 otsailak 18)  
Sasoi berria, bizimodu berria! Armairuko arropa zatarrak zakarrontzira, zapata beltz horiek kendu begibistatik, ilean look aldateta, eta ligatzeko teknikak berrizatu! Romeo eta Julietaren garaiak aspaldi joan ziren!

**HOSTOA**

t



(Apirilak 20 maiatzak 19)  
Irailen egin zenituen ehundaka promesa horiek non daude? Kirola egin, gutxiago edan, zintzoa izan... Zer esaten ari naiz, mirariak Lourdesen ere ez!

**LASTOA**

t



(Uztailak 19 abuztuak 17)  
Udazkenak zortea ekarriko dizu lan kontuetan. Proiektu berriak daukazu airean, eta uste baino lehen biribilduko zaizkizu. Ausardiagaz hartu gauzak, egin aurrera eta konfiantza eduki!

**HAZIA**

t



(Urriak 17 azaroak 15)  
Venusek energia ona bidaltzen dizu, dena ondo atera dadin. Inora joaterik izan ez duzunez, hemendik aurrera atezatzeko gogo asko izango dituzu. Badirudi erromantizismoak utzi egin zaituela.

**ADARRA**

t



(Otsailak 19 martxoak 20)  
Aurtengo udak on egin dizu: dotore janzen zara, ilea garbi-garbia darazu, eta ganoraz berba egiten ikasi duzu. Ligatzea espero bazenuen, sentitzen dut. Negura arte itxaron beharko duzu.

**EGUZKIA**

t



(Maiatzak 20 ekainak 18)  
Ummmm!! Zer egin duzu, Eguzkia? Inoiz baino sexiago zaudete! Feromona usaina honaino ailegatzan zait. Ziur ligatuko duzula! Gainera, gauzak ondo egiten badituzu, amodioa eta adiskidetasuna elkartuko dituzu.

**IRATZEA**

t




(Abuztuak 18 irailak 16)  
Badakit hartu duzun erabakia gogorra dela, baina denborak arrazoia emango dizu. Hasierako egun latzak pasako dira, eta etorriko zaizu merezitako saria. Eutsi goiari!

**NEGUA**

t



(Azaroak 16 abenduak 20)  
Udazkenak espero ez zenuen sorpresa ekarriko dizu. Zer den jakiteko aste batzuk itxaron beharko duzu. Pazientzia izan, zure bizitzari poztasuna ekarriko dion zeozer da-eta.



**mungia**  
OKINdegia

Algortan badaukagu  
artisaunen ogia  
izen eta jatorriz  
da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu  
obispoen guleria  
probatu bada edo ez  
dan benetako egia.


KASUNE 28 - T: 94 430 10 76  
ALGORTA



denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATUAK



Ezker eskuin

- Balakuak, ferekatuak.
- Larruzko oinetako. Arrazoi.
- Iparraldean, nezake. Arrantza ontzi txiki.
- Bizkaiko herria. Garai.
- Iridioaren sinbolo kimikoa. Urrea. Gipuzkoako hiria.
- Euskal langile sindikatua. Barda. Boroa.
- Bizkaieraz, Inola. (Infin.) Ukitu.
- Letoniako hiriburua. Aluminioa. Musika nota.
- Trebea. Sortu zintuena.
- Koskadun. Naizen hau.

Goitik behera

- Langile klasea.
- Martxan jarriak.
- Zirt edo ..., erabaki! Ikusmenaren organoa.
- Asia Txikiko antzinateko hiria. Asiako estatua.
- Nor pluralean. Amerikako estatua. Kanpo.
- Zubereraz, ibarra, harana. Emakume izena. Uranioa.
- Bostehun. Bokala. Iridioa. Behar, egiteko.
- Uztarriz lotu. Mila.
- Iparraldean, keinu. Eskoziako familia-multz. Amerikako estatua. Iodoa.

Soluzioak



asmatu eta irabazi > bi lagunentzako bazkari bat



Nor da?

- Orioko semea.
- Herri honek eman duen artistarik handienetakoa.
- Bere lanen atzera begirakoa ipini dute Bilbon.

> Aurrekoaren erantzuna: Lula da Silva

> Irabazlea: **Xabier Angulo**

\*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo  
uk@aldizkaria.biz / faxa: 94 491 58 31

Zuri Haitz  
Jatetxe begetarianoa



Sertutxa 4, Sopela  
Telf. erreserbak: 645 732 991

cianoplan s.a.  
global printers

Villa de Plentzia 6. zbk  
Antiguo Golf - Getxo

tfnoak: 944 64 90 87  
944 64 86 91

http://www.cianoplan.es

- Inprimatze eta plano kopiak.
  - Kartelak kolorez eta z/b.
  - Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
  - Fotokopiak kolorez eta z/b.
  - Era desberdinetako koadernaketak.
  - Plastifikazioak.
  - Fax zerbitzua.
- ...eta gainera, fitxategien imprimaketa!



Bittor Egurrola

Getxoko institutua, 1966an

**300 ikasle** ingururekin 1966an hasi zuen bere ibilbidea Getxoko institutuak. Hasieran administratiboki, Bilboko *Femenino* institutuaren menpe zegoen. *Getxo I* eta *Julio Caro Baroja* izenak beranduago etorri ziren.

Ia 40 urte igaro dira, jakina, hastapenetako garai haiek ez zeukaten gaur egungoekin zerikusirik: latina, erlijioa eta politika nahitanahiezko irakasgaiak ziren ikasle guztientzat, politika irakaslea Franco dikatadorearen sistemak aukeratua izaten zen...

Eta zer egiten dute argazkian gaztetxo bi horiek? Ikasleen ordezkari edo, bakoitza bere zuzendariarekin dago. Gogoratu behar da neskak eta mutilak bananduta egon zirela lehenengo ikasturte bietan. Sartzeko ate ezberdinak, ikasgela ezberdinak, zuzendari bi ere baziren... Bestalde, gaztetxok dira 11 urterekin hasten zelako batxillergoa, sei urtekoa garai horretan. Hau amaitu ondoren, PREU (preunibersitarioa) egiten zen, urtebeteko ikastaroa.

Institutuaren aurrean ateratako argazki honetan, gauza batzuk begibistakoak dira: gizonaek gorbata janzten dute, emakumeek ez dute prakarik janzten (debekatuta zuten), zuzendari biak beste irakasleen alboan jesarrita daude baina ez jesarleku berean. Haiek garaiak! m

**Zutunik:** Angel Martinez, Ana Kobeaga, José Antonio Tous, Juan Antonio Salcedo, Isabel Moreno, Begoña Albisua, Pedro Olaizola, ?, Margarita Sagarna, Joseba Arteta.

**Jesarrita:** Jacinto Gómez-Tejedor (GB), Conchita Mazón, Luis Zenon, Marisi Cortes, Aurora Gómez-Tejedor, Agirre, M. Dolores Etxebeste.

**Belauniko:** Mariñ Somocurcio, Rita Aginako.

[aitormenak]

**ANARI** > abeslaria

“Barkamena? Hitz hori ez dut ongi ulertzen”

Testua: **Jon Urresti** / Argazkia: **Baxi**



**Definitu ezazu zeure burua berba bitan bakarrik.** Ez Dakit (hitz bi).  
**Zein animaliaz zatoz bat?**  
Momentu honetan, zebrearekin: ez zuria, ez beltza, kontrakoa baizik.  
**Zein liburu gustatuko litzaizuke idaztea?**  
Albert Camus-en *El extranjero*.  
**Eta zein filman egingo zenuke protagonistaren papera?**  
Krzysztof Kieslowski-ren *Azul* pelikulako Juliette Binoche-n pertsonaia: oso gogorra, oso ona.  
**Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?**  
Nire historiakoa: nire ama.  
**Zure jakirik gogokoena.**  
Nire amak prestatzen duen kaneloiak arrainarekin.  
**Aitortu dezakezun bizio bat.** Asko: gozoa, siesta, zinea, musika, mendia...  
**Oporretara joateko lekurik aproposena.**  
Cadiz aldea oso gustuko dut, Andaluzia osoa, egia esan.  
**Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen?**  
Zer da barkamena? Hitz hori ez dut oso ongi ulertzen.  
**Zer janzten duzu lo egiteko?** Dena erazten dut.  
**Ezin zaitzke bizi...** Hil eta gero...  
**Zer gordetzen duzu sakeletan?** Dirua, giltzak... Ez naiz poltso zalea.  
**Inoiz erosi duzun gauzarik bitxiena.** “Primo de Rivera”-ren giltzatakoa.  
**Zer berri gustatuko litzaizuke entzutea albistegi batean?**  
Berri benetan berri bat.  
**Ohitura txarren bat...** Ohitura bera igual da txarra... onena ere.  
**...Eta sineskeriaren bat.**  
Denok ziur eta benetakotzat ematen ditugun horiek denak.  
**Zertan gustatuko litzaizuke haragitzea?**  
Ez dauka graziaz. Bizitza ikusi eta ikasi ondoren ez da berdina.  
**Zein da gehien errepikatzen zaizun ametsa?**  
Nerabezaroan galdutako aita etortzen dela etxera.  
**Noiz egin zenuen negar azkeneko aldiz?**  
Carlos Sorín-en *Bombón, el perro* filmarekin, Donostiako azken Zinemaldian. m

**LABURREAN**— Ana Rita Alberdi Santesteban bataiatu zuten, baina ikastolan izena laster laburtu zioten. Txikitik piano eta solfeo ikasketak egin zituen, baita utzi ere: “*Inprobisaziorako lekurik ez zegoen*”. Bateria gurago eta aldi berean gitarra erosi zuen. Literaturzale amorratua eta irakasle ogibidez, Anarik (Azkoitia, 1970) nahiago du harreman askea edukitzea musikagaz, eta ez zaio atsegin “kantautore” berba, berak idatzitakoa abestu ohi duen arren. Doinu goibel eta bakartiak, berba biluziak eta giro deserosoak daude bakarlarik honen diskoetan: *Anari* (1997) eta *Habiak* (2000). Lehenengoak 2.500 ale inguru saldu zituen; bigarrena, ostera, Estatuko hamaikagarren diskorik onena izan zen Rock de Lux aldizkariarentzat: “*Lehenengoak ni aurkitu ninduen; bigarrenean, berriz, ni neu joan nintzen kantak bilatzera*”. Iaz, Euskal Herriko kantuak azken urteotan eman duen beste izen garrantzitsuagaz elkartu zen –Petti–, disko labur bat osatzeko. Momentu honetan, Anari kantu berriakaz bueltaka dabil, eta Madril, Bartzelona, Amsterdam edo Parisen kontzertuak eskaini ostean, “*udaberrira arte agertokietatik desagertuko naiz*”.

# GATIKKA

## bizkaiko bertsolari txapelketa

### 2004



diseinua: di-da

**URRIAK 31**

**domeka**

**17:30ean Frontoian**

 <b>Joseba Artza</b>	 <b>Arkaitz Estiballes</b>
 <b>Gorka Lazkano</b>	 <b>Ibai Guridi</b>
 <b>Igor Meñika</b>	 <b>Beñat Ugartetxea</b>

antolatzailea



babesleak



bbk=



laguntzailea

